



SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko ilbeltzak 22, ostirala • 2. aroa • 537. zenbakia

Lakuntzako San Saastin festen gehigarria >> 11-14

GUaiXE.eUS



Bardoak ekimena, Sakanan hasi eta buka

Etxarriko eta Altsasuko taldeak ariko dira

>>>23



Hiri eta industria hondakinen kudeaketarako eskola tailerrea aritu diren ikasleak erdian.

Eskola-laguntza programa Irurtzunen

>>>7

Hondakinen kudeaketan trebatuta

>>>3

Olatzagutiako tabernek elkarteak sortu dute

Logotipo lehiaketa antolatu dute

>>>9

Sakandarrak Fiturren, ibarraren turismo eskaintza zabaltzen

>>>5

Unanun, hondakinen plantari buruzko galdeketa, igandean

>>>10



Sakanako Pilota Txapelketako finalak Olaztin-Lakuntzan

>>>19



Enneco proiektuari buruzko batzar irekia

>>>15



Sakanako Irristaketa Topaketa Olaztin

>>>20



Isladen kontrako **MARKAKO BETAURREKOAK**

98€

Eskaintza utarrilaren 31ra arte.

948 563 124 • Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu • www.optikasakana.com

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Amona Nieves

Beti gure bihotzetan. Altsasuko familia.



Miren Sarasola Unceta
ZORIONAK Miren!! 6 urte!! Muxu potolo asko etxeko printzesari, Jon, aita eta amaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

ilbeltzak

22-29

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Serious business. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

Bilto-tek: Adrian Alegria, Josu Garate/ Uri, Joseba Juango eta Leo Silva. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, Lakuntzako Biltoki elkartearen.

Reciclart 2.0. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Toom-pak.

Konboen kontzertua. Ilbeltzaren 25ean, astelehenean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Musika eta Dantza Eskola.

Dantza

Karrikadantza. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

Antzerkia

Encerrona. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako Kultur etxean. Pepe Viyuela.

Amico. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Bubamara Dance Theater.

Magia

Hator magiara. Ilbeltzaren 24an, domekan, 17:00etan Olatzagutiako kultur etxean. Tor magoa.

Ipuin kontalaria

Ipuin maskaratuak. Ilbeltzaren 28an, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. Eñaut Gorbea.

Dokumentalak

La plaza de la música. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 17:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Asviamie.

Zinema

El precio de la fama. Ilbeltzaren



Amico antzezlanari bihar, larunbata, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

22an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

La novia. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 24an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hotel transilvania II. Ilbeltzaren 24an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Palmeras en la nieve. Ilbeltzaren 28an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Erakusketak

Jose Maria Urabaien. In Memoriam. Ilbeltzaren 28ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bertsolaritza

Bardoak: Bota lasai / Xirristi Drimtim. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Literatura

Ixa axap! (Jose Luis Asensioarena). Ilbeltzaren 28an, ostegunean, 19:00etan Etxarriko liburutegian. Irakurle taldea.

Bestelakoak

Uharte Arakil, 1936ko memoria. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Uharte Arakilgo udaletxean. Batzar irekia.

Zumba. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

EHko mus txapelketa. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 16:00etan Altsasuko Zubi-Ondo elkartearen.

Password lehiaketa. Ilbeltzaren 23an, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Inauteriak prestatzen. Ilbeltzaren 25ean, astelehenean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bizi kalitatea hobetzeko, informatu.

Ilbeltzaren 26an, asteartean, 9:30etik 14:00etara Etxarri Aranazko osasun etxean eta ilbeltzaren 28an, ostegunean, 9:30etik 14:00etara Altsasuko osasun etxean. Afina elkarte.

Enneco: Haritzaren memoria. Batzar irekia. Ilbeltzaren 28an, ostegunean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Deialdiak

Sakanako hiritar batzarra. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko 1. solairuan. Podemos-Ahal dugu.

Herri batzarra. Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean. EH Bildu.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 22an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenean ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Gaurko gaiak:

- Lakuntzako San Saastinak
- Irurtzango alkatea parte hartze bilerez

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Hondakin kudeaketa eskola tailerraren akabera

SAKANA

15 sakandar hondakinaren kudeaketan trebatuta

Hiri eta industria hondakinaren kudeaketan sei hilabetez prestatu dira

Hiri eta industria hondakinaren kudeaketarako eskola-tailerrean ikasten egon diren 15 sakandarrek asteartean despeditu ziren. Eskola-tailerreko zuzendari Nagore Ocejok ikasleak zoriondu zituen; "nota onarekin gainditu dute". Horregatik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako bigarren mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratuko dute, hiri eta industria hondakinaren kudeaketa integrarean gaitasun profesionala ziurtatzen du. Lan arriskuen prebentziorako oinarritzko ikastaroa gainditu dute ere.

Sei hilabetez hondakinaren kudeaketa integralari buruzko jakintza jaso zuten. Aurreneko bi hilabete eta erdiak klasean egon ziren hiri hondakinak, industria hondakinak (laborategiko praktikak barne) eta lan osasuna eta segurtasuna gaiak lantzen. Nafarroako Unibertsitate Publikoak hondakinaren kudeaketari buruzko Altsa-



Eskola-tailerreko ikasleak, irakasleak eta sustatzaileak.

sun antolatutako uda ikastaroan ere izan ziren.

Bisitak eta praktikak

Teoriarekin batera, honako gaiekin prestakuntza osagarria jaso zuten: ingurumen sentsibilizazioa, trebetasun sozialak, informatika eta teknologia berriak, ekin-

tzailetasuna eta berrikuntza (ANEL), eko-berritasuna (Moderna fundazioa eta Laseme), genero-berdintasuna (Cederna-Garalur), enpleguaren bilaketa aktiboa (UGT) eta materia organikoaren konpostatzea (Vermican).

Aldi berean, klasean ikasitako bisitetan praktikan ikusteko auke-

ra izan dute. Honako bisitak egin dituzte: Inoxnaparra, Industrial Barranquesa, Urdiain-Altsasuko araztegia, Emausko Traperok, Ecointegra, Batuta, Gongorako hiri hondakinaren tratamendu zentroa, Culebretoko hondakindegia, Azkoiengo ontzien tratamendu planta, EcoIruña, Bioenergia Men-

di, Loreki eta Lapats. Prozesu guztian ebaluazio jarraitua eta azterketak izan dituzte, aprobetxamendua aztertzeko.

Eskola-tailerrearen gainontzeko lau hilabete eta erdiak praktika profesionalak egiten pasa dituzte. Eskola-tailerrearen sustatzaileetan zazpi lanpostutan egin dituzte praktika horiek. Mank-en Hondakin Zerbitzuan egin dituzte haietako batzuk. Hala, Arbizuko hondakindegian dagoen Garbigunea garbitu, antolatu eta txukundu dute. Han bertan lan segurtasunari buruzko neurriak ezarri dituzte. Konposta zakutu eta hainbat modutara kudeatu dute. Eskola-tailerreko ikasleak Mank-eko hezitzaileekin batera auzo-konpostaren segimendua egin dute. Kerabi eta Vermican enpresetan ere praktikak egin dituzte. Guztia bukatuta, haietako bi dagoeneko Sakanako Mankomunitatearekin aldi baterako lanean ari dira eta hiru hilabeterako beste bi kontratu egingen ditu Vermican enpresak.

Adierazpenak

Tailerra despeditzeko ekitaldian Aitor Karasatorre Mugurutzak, Mank-eko buruak, nabarmendu zuen hondakinaren tratamendua helburu nagusia haiek hondakindegian ez bukatzea dela. "Helburu ekonomikoekin hondakinak tratatzeak eta berreskuratzeak ingurumena, paisaia, enplegua eta gizarte baldintzak hobetzen ditu; enplegu berdeada". Azken finean, "hondakin gutxiago sortu, gehiago birziklatu eta sakandarrek egiten ari diren ahalginan bai sektore publikoan nola pribatuan lanpostuak sortzeko balio dezala nahi dugu". Karasatorrek jakinarazi zuen Europak 2020rako hondakinaren erdia birziklatzea eskatzen duela.

"Sakana dagoeneko kopuru horretan dago, eta Nafarroako Hondakin Planean ezarritako kopuruak gainditu ditu Mank-ek hondakinengaitako bilketaren eta konpostatzearen aldeko apustu handia egin duelako". Karasatorrek nabarmendu zuen Mank-ek eta Sakanako Garapen Agentziak birziklatzearen bidez "enplegu berdea sortzeko potentzialtasuna errealitate bihurtzeko apustua egin dugu. Horren adibide dira enplegu-eskola tailerra eta materia organikoaren berreskuratzea, prestakuntza eta enplegua sortzea helburu duen Europako Valorg proiektua". Enplegu berdea sortzeko Karasatorrek gaztigatu zuen

zein prestakuntza eta enplegu hobekuntza beharra daudela. Legediak praktikan nola eragiten duen aztertu beharra dagoela gaineratu zuen. Mank-eko buruak Valorg proiektuak horiek guztiak testatzeko balioko duela gaztigatu zuen. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko (NEZ) Altsasuko bulegoko zuzendari Migel Anjel Jorgel NEZen izenean Mank-i eta eskola-tailerreko parte-hartzaileei esker eman zizkien. NEZen "erakundeei eta pertsoneri ahal den guztian zerbitzua eman eta laguntzeko" daudela azpimarratu zuen. "Halako proiektuekin, eta denen artean, krisitik aterako gara".



3 milioi lanpostu

Europako Batasunak 2020rako kalitate handiko %50 birziklatzea eskatzen du. Erakunde beraren kalkuluen arabera birziklatze tasa horrek kontinentean hiru milioi lanpostu sortuko lituzke. Birziklatzea %70era igoko balitz aurreko kopuruaz aparte Europan beste 750.000 lanpostu sortuko liritekeela uste da.

13 ideia



Ekintzailetasuna eta berrikuntza modulan ikasleek hiri eta industria hondakinaren kudeaketari lotutako 13 negozio ideia sortu dituzte. Lasemek proiektu eko-berritzaileen lehiaketa antolatzea aztertzen ari da aurrean. Hiru sarituek proiektua garatzeko adituen asistentzia tekniko izanen lukete, gerora inbertsio funtsei aurkeztu ahal izateko.

Beste bat

Eskola tailerra Sakanako Mankomunitateak, Kerabi Gestion Medioambiental, SLk (Etxarri Aranatz) eta Vermican Soluciones de Compostaje, SLk (Iruña) sustatu dute. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Enplegu Ministerioak eta Europako Gizarte Funtsak finantzatu dute. Inafreketa NUPEk lagundu dute. Mank-eko buruak jakinarazi zuen bigarren eskola-tailerra antolatzeko lanak abiarazi dituztela.



Marian Mendiola

Kamishibai

astekoa

gutunak

Arbizuko udal liburutegian antolatutako ekintza batek arreta eman dit: Kamishibai, izen exotikoa eta dotorea. Eszena ondokoa da: neska-kontalaria "tramankuluxume" batekin, neska-mutiko koxkorak ahoa zuloari begira, erne-erne, eta "beste bat, beste bat..." garra-sika. Batek baino gehiagok hori ikusi eta "Ezer ez eta festa!" esango genuke. Baina, gauza txiki horrenatzean zerbait handia egon daitekeela susmoa hartu diot eta

kuxkuxean hasi naiz. Kamishibai "paperezko antzerkia" da japonieraz. Ipuin kontalariak, egurrezko antzerki-kutxatxoaren (butai) barruan sartzen diren irudiez lagunduta, ipuinak kontatzen ditu. Modu honetan, ipuinak ikusi eta entzun egiten dira aldi berean.

Antza, Japonian sortu zen, joan zen mendeko 30. hamarkadako krisialdiekonomikoari aurreegiteko. Herriz herri bizikletaz litxarrerriak saltzen ibiltzen zen sal-

tzaile batek karraka jo eta maletatik antzerki kutxa ateratzen zuen, bezeroen arreta erakartzeko. Marrazki laminak poliki-poliki pasa eta istorioak kontatzen zituen, haurren algarak edota beldurrak piztuz. Ikuskizuna bukatuta, nonbait, errazago saltzen zituen potokeriak. Istorio honek gure aittun-amiñek aipatzen dituzten "komedianteak" ekartzen dizkit gogora.

Jatorria dena delakoa izanda

ere, ez da gutxi hain modu apa-lean ikusleak harrapatzea, beste eratako estimuluz josirik dauden honetan. Horrelako gauzek erakusten digute, "jostailuen industriak eta teknologiak" eskaintzen dizkien produktuez haratago joan daitezkeela haurrak. Istorio-marrazkien magian eta irudimenean murgiltzeko trebetasuna galdu ez duten seinale dira haur jostagarri, sugandila, horien aurpegiak.

barrutik kanpora

Nafarroako Gobernuak erabakitzeke dituen gaiak

2012. urtean CNCK (Lehiakortasunerako Nazio Batzordeak) frogatutaz eman zituen Cementos Portland Valderrivasek lehiakortasun librearen kontra burututako praktika kartelistak. Garai hartan balioztatu zenaren arabera, salneurrien moldaketa artifizialean eta merkatuen banaketa adostuan oinarritutako praktika hauek, diru-kutxa publikoari, legez kanpoko bideak erabiliz, 100 bat milioi euroren galera ekarri zion. Nafarroako aurreko legealdiko parlamentuak 2012ko maiatzaren 11ko saioan aztertu zuen

gai hau, eta bertan, Nabai, Bildu eta I-E taldeek, herritarrek jasaten ari ziren lapurreta honetatik babesteko, afera honetan nahasia zeuden enpresen kontra legezko akzioak abian jartzea eskatu zuten. Bestelakoa izan zen orduan gobernuan zeuden UPN eta PSN taldeen iritzia, PPK ere onetsia, eta CNCren ebazpenaren kontra helegitea jarrita zegoela argudiatu zuten.

Auzitegi Nazionalak, 2013ko abenduaren 27an emandako epaian, atzera bota zuen Portlanden helegitea eta banan-banan

berretsi zituen zementugileei leporatutako iruzur guztiak. Epai hori Auzitegi Gorenaren aurrean apelatzeko modua zegoen.

Hala eta guztiz ere, eta aldi berean, aurreko Nafarroako Gobernuak 2012ko garagarriaren 12an lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuen Portlandekin. Hitzarmen horren bidez Portlandek Nafarroako hondakinen kudeaketan laguntza emango zuen bere instalazioak hondakinak errausteko eskainiz, eta Nafarroako Gobernuak, aldiz, "koordinazioa"

eskaintzen zuen hitzarmenaren helburuak bete zitezten, besteak beste, batez ere Nafarroan sortutako hondakinak erraustu eta hondakinekin sortutako "erregaiak" ekoizteko bideak inplementatu, gero horiek zementu-fabrikari erre ahal izateko.

Ongi legoke Nafarroako Gobernu berriak Portlandekin loturikogai hauek denak eta beren egoera juridikoa sakonki aztertzea.

3Mugak Batera

<http://olaztinerarausketarizek.blogspot.com.es/>

hara zer dien

Urte berria. Asmo berriak

2016ko gure lehenengo kolaborazioa denez, hasteko: urte berri on! Hau da denok, isilpean edo ahoz, pentsatu edo esan genuena ilbeltzaren 1ean. Guk ere gauza bera esan genuen urte berri honetan, GUAIXEn gai berriekin parte hartzeko!

Gizartean, batez ere Sakanako gizartean, emakumeen parte hartzeari buruz hitz egin nahi dugu. Gai zabala beste zutabe batzuetan hausnartzen jarraitzeko modukoa. Baina, gaurkoan indarrean dagoen beste gai batekin lotuko dugu: Sakanako garapenerekin. Osolan garrantzitsua egin

beharrak, baina, gure ikuspuntutik, genero ikuspuntutik, lan horri eskatu behar diogu Sakanako emakumeen, batez ere gure emakume gazteen (gehienek goi mailako ikasketak dituztenak), eskaintzak jaso ditzala eta beren beharrei erantzun dezala.

'*Sakanan bizi eta lan*' leloaren helburua lortzeko, hau da, gure herri txiki horiek bizi irauteko, ezinbestekoa da enplegua sortzea eta mantentzea. Baina, hortaz aparte badago kontuan hartu beharreko beste arlo batzuk: komunikazioa (gure artean eta gainontzeko munduarekin), hez-

kuntza, osasun-zerbitzuak, administrazio-zerbitzuak, etab. Bete herriar guztiek, emakume zein gizonek, aukera eta zerbitzu horiek erabiltzeko eskubide bera dugula bermatuz.

Eta, enplegu aritzean, ez ahaztu krisi honetan desagertu den beste beharra: gizakien zaintzak. Enpleguak gero eta ordu gehiago eskatzen digu, bai formakuntzan, bai enplegua lortzeko, bai mantentzeko, bialantegietan 'izen handia' eta "sona" izateko.... Baina pentsatu eta aurreikusitako beharko dugu nork zainduko gaituen eta nork zainduko dituen gure ingurukoak. Honatx gure garapenaren planifikazioan sartu beharreko beste gaitako bat.

Dakigunez gaurko gizartean garapenari buruz hitz egitean, ez dugu iraunkortasun ekonomi-

koa soilik lantzen, ingurumena eta gizartearena ere txertatzen da. Hori lortzeko landu behar dugu hirigintza, politikan parte hartzea, kultura, herritarren bizi baldintzak etab. Arlo hauetan guztietan emakumeen eta gizonen egoerak desberdinak dira, noizean behin parekatuak, bestetan diskriminatzaileak, baina, gehienetan desberdinak. Horrexegatik Sakanako garapen iraunkorrena eta lan eraginkorrena lortzeko bidean, gure proposamena da emakumeen egoera ezagutzea eta baldintza guztiak jartzea (ekintza positiboak barne) parte aktiboa izateko. Hori ezinbestekoa ikusten dugunez, hemendik ere proposamen hau errealitate bihurtzeko lan egingo dugu!

Emakumeen Bilgunea

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitx Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DIRUA UDALERA BUELTRAN: Nafarroako Gobernuak Altsasuko Udalarari 5.913 euro eman dizkio. Kooperatibak eta fundazioak ondasun higiezinaren gaineko zergaz eta

ekonomia-jardueren gaineko zergaz salbuetsiak daude. Horregatik, gobernuak, konpentsazio gisa, ordainketa egin du.

sakanerria >>

SAKANA

Kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programa 2017an iritsiko da Sakanara

Osasunbideak kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programa 2013an hasi zuen. Programa horren bigarren fasea aurturten abiaraziko du eta bere baitan, heldu den urtean, Sakanara iritsiko da. Osasuneko kontseilari Fernando Dominguezek jakinarazi duenez, Irurtzungo, Etxarri Aranzoko eta Altsasuko osasun etxe-

etan 2017ko bigarren sei hilabete-koan jarriko da programa indarrean.

Kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programa 50 eta 69 urte arteko nafarrei zuzenduta dago. Dominguezek jakinarazi duenez, kolon eta ondesteko minbizia Nafarroan sarrien diagnostikatutako tumorea da, minbi-

ziagatik emakumezkoetan heriotza gehien sortzen duen lehen arrazoia izanik eta bigarrena, gizonetzkoetan. Haren tratamendu eta sendatzea errazagoa da garaiz detektatzen bada, eta goiz diagnostikatzen denean, % 90 sendatzen da. Aldiz, aurreratutako faseetan diagnostikatzen bada, biziraupena % 50era murrizten da.



Kontuan izatekoak

Minbizia mota hori prebenitzeko bizitza-estilo osasungarriak izatea garrantzitsua da, baita elikadura egokia ere. Esaterako: haragi gorria, prozesatuak neurrian jatea, suaren gainean zuzenean asko egindako edo ongi egindakoak neurrian jatea; zuntz askoko eta koipe gutxi elikagaiak jatea, esnea eta esnekien kontsumoa sustatzea, elikagaitan dauden kaltzioa eta D bitamina behar bezala hartzea; ariketa fisikoa egitea (egunean ordu erdiz ibiltzea gutxienez intentsitate ertainean), sedentarisismoa eta obesitatea saihesteko; eta alkohola eta tabakoa ez kontsumitzea, besteak beste.



Sakanaren sustapen bideoan momotxorroak ageri dira.

Sakana Fiturren

Madrilgon nazioarteko turismo azokan sakandarrak estreinakoz presente izanen dira. Nafarroako Gobernuak jarritako standa Sakanaren erakustoki ere bihurtuko da. Asteazkenetik igandera arte irauten du azokak eta egun horietan guztietan Bidelagun, Sakanako turismo elkarteak 4.000 bat informazio euskarri banatuko ditu. Horrekin batera, Sakanaren berri ematen duen bideoa mustuko dute.

Altsasuko ihote batzordeko 30 kide ere Fiturren izanen dira bihar.

Egunean zehar standean ihotearen hainbat antzezpen eginen dituzte. Horretarako, txistulariak, atabalariak, txalapartariak, momotxorroak, gilda, juantranposoak, sorginak eta akerra eramanen dituzte. Garai bateko erritu paganoak antzeztuko dituzte denen artean. Sakanan turismoa sustatzeko ekimen zabalago baten zati da Fiturreko hori. Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo pratuergoak Madrilgo azokan izanen da ere.

Lakuntza / Arbizu / Altsasu

Haur eskolak Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan

Guztira 400.000 euro bideratuko dira

Nafarroako Gobernuaren 2016ko aurrekontu legea Parlamentuan bere bidea egiten hasi da. Nafarroako Parlamentuko Ogasun eta Finantza Politika Batzordea aurrekontu legeari aurkeztutako 390 emendakinak aztertzen hasi zen astelehenean.

Astelehenean onartutako emendakinen artean Lakuntza-Arbizuko Kattuka eta Altsasuko Txirinbulo haur eskola publiko- en eskaintza hobetzeko bi diru sail aurreikusten dira; bata 300.000 eurokoa eta, bestea, 100.000 eurokoa; 400.000 euro guztira. Lakuntza eta Arbizuko Udalek Kattuka haur eskola eraiki zuten baina Nafarroako Gobernuak hitzemandako diru-laguntzarik ez zuten jaso. Udalek 150.000 euroko diru-laguntza jasoko dute aurturten. Altsasuko Udalak, bestalde, Haur Hezkuntzako lehen zikloa egiteko 250.000 euro behar dituela uste



Kattuka haur eskola.

dute. Bi emendakin horien aldeko botoa eman zuten gobernuari eusten dioten lau alderdiek (Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta I-

E); PSN abstenitu egin zen eta UPNk eta PPNk kontra bozkatu zuten.

Hyundai Tucson berria
Aldatzea jarrera bat da

#changeisgood

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirraragarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea www.hyundai.es-en

 NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Tucson 1.6 GDI (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatzeko duten bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaio entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2016/01/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzaioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai konzesionarioetan edo hyundai.es-en.

Gama Hyundai Tucson: CO₂ (gr/km) isurtzea: 119-175.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

>> Etxarri Aranatz

Odol-emaileendako dozena erdi domina

Etxarri Aranazko odol-emaileen festa ospatu zen igandean. Odol-emaileen topaketak urteetan eskuzabalak izan diren jarduna aitortzeko balio zuen ere. Odol-emaileen elkarteko, Adonako, eta Etxarriko Osasun etxeko larrialdietako mediku Pedro Eskirozek hitza hartu zuen ekitaldian: "Busti beharra dago, odola eman beharra dago. Odola ematea parte hartzeko modu bat da. Ahalegin txikia eskatzen du eta ekartzen duenak poz handia ematen du". Horregatik, Eskirozek "inguruan odol-emaileak egiteko" deia zabaldu zuen.

Sei odol-emailek jaso zuten aitortza. Alde batetik, 50 odol-emaile egin zituzten Juan Manuel Araña Petriati, Luis Manuel Igoa Etxarri eta Adelaida Igoa Erdo-



Marga Jaka, Asun Garmendia, Pedro Eskiroz eta Ignazio Lopez de Sabando.

zia. Ez ziren ekitaldian izan. Haien urrezko domina Nazioarteko Odol-emaileen Egunean jasoko dute, garagarriaren 14an, Iruñean egingen den ekitaldi batean. 25 alditan odola emateagatik

zilarrezko domina eskuratu zuten, berriz: Jon Artieda Mugu-ruza, Emeterio Senar Elso eta Victor Javier Jaka Garmendia. Azken horren ordez joandako ama, Asun Garmendia, eta arre-

ba, Marga, izan ziren domina jaso zuten bakarrak. Bestalde, 42 urte egin ditu Ignazio Lopez de Sabandok Etxarriko Adonako ordezkarri gisa. Ekitaldian bildutakoek txaloekin eskertu zuten

bere lana.

Datuak

Adonaren Etxarri Aranazko ordezkaritzak 440 kide ditu. Joan den urtean odola estreinakoz 6k eman zuten. Haietatik 126k eman zuten odola joan den urtean, 2014an baino 28 gutxiago. Guztira 200 odol-emaile egin zituzten eta haietatik 34 besterik ez ziren atzera bota. Aurreko urtean autobusa Etxarri- ra beste behin etorri zenez, kopurua 111tan egin du behera. 194 odol-emaile normalak izan ziren eta gainontzeko 6ak aferesi prozesua. Odola emateko tokiari dagokionez, etxarriar gehienek autohemoteka, Adonaren autobusa herrira etortzean eman zuten odola. 41 odol-emaile besterik ez ziren beste toki- ren batean egin.

Iyotiek, bete-betien

Eguberriyeko despeditu berri, ta garizuman aurretik, Etxarri Aranatzeko ihote ospakizunek gaur hasiko die. Ohi danes, astearte iyote aurreko hiru ostegunetan iyote ospakizunek izanen die. Kintuek eta hain launzalie izeten dien hiru egun hoiten kalia txatarraz jantzik atiatzen diena. Alde guzita de, kintuek, dau-neko, urte zahar egunien eskien aittu zien.



Zalduniyoteko segizioa.

Eguteye

>> Ilbeltzak 21, ostegune, Gizakunde

Gizon helduben eguna; txatarraz jantzita eskien atiatzen zien. Jatekoa biltzen zebien, gio afaye eitteko. Puska biltzie einen da aurtan de.

>> Ilbeltzak 28, ostegune, Andrekunde

Emakumien egune; haik aitzen zien etxez- etxe eskien, gio afaye eitteko. Puska biltzie einen da aurtan de. Urtero modue, zenbeit familitako emakumiek afaye einen debie.

>> Otsailak 4, ostegune, Garikunde

Gaztien arteko borrokaa egune; kolpiek

urte guztiyen barna debekatuta zen, eta egun hoi biain arteko gorabeherak konpontzeko ibiltzen zebien. Kontrayue lurran kontra eusten zakiyon, beye kolpeik eman be. Maskubiyek haizez bete, eta jendie jotzen zebie, beita suko hautsa bota de. Txatarraz zigorrak eskuben dakabiela atiako die.

>> Otsailak 7, iyendie, Zalduniyote, o mutillerdiey

Haurran eguna izeten zan, txatarraz jatzien zien. Aurtan, arratsalde, txatarraz jantzik festa giruen ibilko die.

>> Otsailak 9, asteartea, Astierteiyote

Garei betien gaita jotzen zan eta bazkaye eitten zan, denak txatarraz jantzik zela. Aurtan de makina bat ekitaldi izanen die.

Aldapasoroko lanak aurrera

Aldapasoro auzokosareak etazoladura berritzeko lanak azaroan hasi ziren. Berez, lan horiek 2011. urtean egitekoak ziren, baina Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza faltagatik atzeratu egin dira. Izan ere, 2009-2012 Tokiko Inbertsio Planean jasotako lana baita Aldapasoro auzokoa.

Hasiak dauden lanen aurrekontua 774.504,43 eurokoa da. Haie-

tatik Nafarroako Gobernuak 535.730,55 euro jarriko ditu. Auzokideek, bestalde, kontribuzio berezien bidez 214.894,49 euroko ekarpena egingen dutela aurreikusit du udalak ere. Eta gainontzeko 23.877,39 euroak udalak jarriko ditu. Lanak Construcciones Valeriano Santesteban enpresa egiten ari da eta zazpi hilabetetan despedituta egotea espero da.



Langileak Aldapasoron.

SAKANA



Irañetako kanporaketa. UTZITAKOA

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak

Martxan da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Herriz herrirako kanporaketak jokatzen ari dira. Irañetan, esaterako, hilaren 2an jokatuzen. Sei bikote neurtu ziren Txapel-azpielkartean. Finalean Javier Beraza eta Raul Leza bikoteak Benjamin Botanzi eta Florentino Berazari irabazi zieten. Altsasun, bestalde, kanporaketa larunbatean, jokatuko da, 16:00etan, Zubi-

ondoelkartean. Xurrut, Alde Zaharreko tabernen elkarteak babes- tutako kanporaketa da.

Herrietako kanporaketetako onenak otsailaren 20an Iruñean jokatuko den Nafarroako finale- rako txartela eskuratuko dute. Eta herrialde bakoitzeko bikote one- nak elkarrekin Urdiñarben (Zube- roa) neurtuko dira, martxoaren 5ean.

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

LARRAZA

ARDOAK

948 460 014

Zugarreta, 2 • Etxarri Aranatz

kaxeta

liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua

Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

>> Irurtzun

Irurtzundarren ahotsa udaletxean

Joan den larunbatean hasi eta bihar despedituko dira Irurtzunge Udalak antolatutako parte hartze bilerak. Irurtzunge Udalak herria sei zatitan banatu eta zati bakoitzean dauden kaleetako irurtzundarrak bilera banara deitu ditu. Bizitokia gertutik ezagutzen duenez, irurtzundarrek informazioa lehen eskutik eman dezatela nahi dute udalean. Halaxe azaldu digu Aitor Larraza Carrera alkateak: “bakoitza bizi den auzoan, zein premia eta behar dituen hobekien dakiena da. Horiek lehen eskutik jaso nahi ditugu, jendeak herrirako zein ideia eta behar sumatzen dituen.

Alkateak argudiatu duenez, “gu udalaren egunerokotasunean sartuta gaude. Herria osotasunean hartzen dugu. Parte hartze bilera hauek irurtzundarrek zuzenean jakinarazpenak egiteko modu bat da. Guk jakin behar dugu, baina haiek gu baino hobekite euren kalean zein premia dituzten, eta zuzenean haien premien berri ematen digute”. Espero baino jende gutxiago agertu zen

pasa den larunbateko bileretara. Hala ere, “ongi, jendeak parte hartu du. Bilera onak izan dira”.

Aurrekontuak

Orain arteko bileretan Larrazak udalaren aurtengo aurrekontuetan jaso nahi dituzten egitasmo nagusien berri ere eman dizkie irurtzundarrei. Baina horrekin batera legegintzaldiko hurrengo hiru urteetan aurrera eraman

Bilerak

>> Ilbeltzak 23, larunbata

10:00etan Intxaurreta, Ugaldeta, Larraun eta Lizarra (19 zb arte) kaleetako bizilagunak.

12:00etan Iturtxoko, Behetiko Erreka, Herria eta Lizarra (20 zb-tik aurrera) kaleetako bizilagunak

16:00etan Berria, Elizpea, Bi haizpe eta Aralar kaleetako bizilagunak.



Aitor Larraza Carrera alkatea bileretako batean irurtzundarrei azalpenak ematen.

litezkeen ekimenez herritarren iritzia jaso nahi izan dute udalean.

Alkatetza duen EH Bilduk aurrekontu zirriborroa aurreko astean pasa zien gainontzeko udal taldeei. Bi aste izanen dituzte emendakinak aurkezteko. Larrazak esan digunez, aurrekontua

otsailean onartzea espero dute. Aurreratu digunez, gizarte arloko diru-sailak mantendu eta bizpahiru proiektu jaso dira aurrekontuetan.

Udalatik kanpoko irurtzundar talde bat aurrekontu parte-hartzaileak lantzen ari da aurten ere. “Horrek Irurtzun herri bizia dela

eta parte hartzen duela erakusten du”, esan digu alkateak. Zortzi proiektu dituzte gaur egun esku artean. Horiek eragileei aurkeztuko zaizkie eta galbahea pasata hiruzpalau geldituko dira, eta irurtzundarrek bozketa bidez haietako bat aukeratu du. Udalak 35.000 euro bideratu ditu.

>> Irurtzun

Ikasleen eskola-errendimendua hobetzeko laguntza programa indarrean

Joan den ikasturteko probaldiaren ondoren, bueltan da Irurtzunge Udalaren eskola-laguntza programa. Eskola-errendimendua eta ikasketa-ohiturak hobetzeko beharra duten ikasleei zuzendutako programa da. Atakondoa eskolak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Immigrazio Zerbitzuak atzemandako gabezia bati erantzunez sortu zen eskola-laguntza. 2015eko martxotik garagarzarora, hiru hilabete eta erdiz, indarrean izan ondoren, ilbeltzarekin batera bueltatu da programa, maiatzera arte.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua antolatetaz arduratzen da. Joan den urteko esperientzia eta gero, zerbitzuaren funtzionamendua hobetze aldera, udalak gain hartu du hezitzaileen eta ikastetxe-

ren arteko koordinazioa. Eskolak, berriz, parte-hartzaileak hautatu eta laguntza akademikoa eskaintzen dio lantaldeari.

17 ikasle

Bost hilabetez hiru hezitzaile arduratuko dira eskola-laguntza emateaz; haietako bat boluntarioa da. Haien ardurapean 17 ikasle izanen dira. Haietako 9 Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak dira eta gainontzeko 8ak DBHko 1. eta 2. mailakoak. Guztiak ere Atakondoko ikasleak. Arrazoi desberdinengatik eskola-laguntza programan parte hartzen duten ikasleek arazo akademikokoak dituzte. Horregatik, programaren bidez gehienbat alderdi akademikoa lantzen den arren, beste alderdi batzuk ere



Gurasoak eta ikasleak Atakondoa eskolan. ARTXIBOA

hartzen dituzte kontuan, beti ere, ikasleen eskola-errendimenduan eragina izan dezatela: jarra, integrazioa, elkarbizitza...

Eskola-laguntza astean bitan

eskaintzen da, astearte eta ostegunetan, eta bi taldetan banatuta dago. Saio bakoitza ordu batekoa da eta eskolatik kanpo udal eraikin batean ematen da.

SAKANA



Afina elkartearen informazio jardunaldiak

Afinak, fibromialgia, neke-kronikoren sindromea eta sentsibilitate kimiko anizkoitzaren elkarteak, Sakanan informazio jardunaldiak antolatu ditu. Elkarteak saio horiekin bizi kalitatea hobetzeko informazioa zabaldu nahi du. Sakanako hiru eskualde buruetako osasun etxeetan izanen dira saioak. Aurrena, atzo izan zen Irurtzunen. **Asteartean** Etxarri Aranazkoan eta **ostegunean** Altsasukoan, 9:30etik 14:00etara,

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Zatoz
gure ardotegia ezagutzera!

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILA

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisauek
PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANAZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

>> Irurtzun

Doktoretzako aparteko saria Idaretarendako

NUPeKo Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultatean 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan egindako doktoretza tesi onenaren saria jaso du irurtzundarrak

Fran Idareta Goldarazena, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte-Lanean doktorea, doktoretzako aparteko saria jaso du. Sari horrek Idaretaren tesia gizarte-lanaren etikari "egindako ekarpena, berritasuna, originaltasuna eta erabilgarritasuna, kalitatea eta haren eragina, sorrarazi dituen publikazioak baita sarituaren akademia espedientearen bikaintasuna" aitortzen ditu.

Idaretak NUPen gizarte-laneko aurreneko gradu-ondokoa ikasi zuen 2006 eta 2008 artean. Hura despeditu ondoren tesia



Fran Idareta Goldarazena, gizarte-lanean doktorea.

idazteari ekin zion. Etika lehen filosofia gisa: Emmanuel Lévinasen etika gizarte-lanari gerturaztea izenburua zuen tesia. NUPeko Gizarte-Laneko Departamentuko zuzendari, filosofia arloko irakaslea eta nazioartean gizarte-lanaren etikari ikerlari nabarmenena den Maria Jesus Uriz Peman doktorea zuzendu zuen irurtzundarraren tesia. 2011ko apirilean aurkeztu zuen Idaretak eta bikain cum laude aitortza eskuratu zuen. Berea gizarteko esku-hartzearen epistemologia eta etikako Estatuko lehen tesia izan zen. Hau da, gizarte-lanaren arloan "nola lan egiten dugun eta nola hobetu dezakegun".

Idaretak estatuko eta nazioar-

Idaretari 2011n egindako elkarriketa

<http://guaixe.eus/irurtzun/1453362207655>

teko itzala duten aldizkarietan 20 artikulua baino gehiago argitaratu ditu. Nazioarteko prestigidun argitaletxeekin zenbait liburu argitaratu ditu ere. Aurretik, gizarte langile gisa zenbait urtez aritu da. Gaur egun NUPeko Gizarte-Laneko Departamentuan irakasle eta ikerlaria da. Maria Jesus Uriz doktorea zuzentzen duen Efimec ikerketa taldeko zuzendari-ordea da. Bere ikerketa ildo nagusiak gizarte lanaren etikari eta epistemologia dira.

>> Olatzagutia

Ebakuntza baterako diru bilketa

Nicolek sei urte ditu. Olaztiarra da. Eta garun paralisia du. Beste haurrak bezala, eskolara joaten da. Olatzagutian bertan. Ikastetxean heziketa bereziko laguntzaile bat du une oro. Haurraren bizi kalitatea hobetzeko familiak atzerrian ebakuntza bat egin nahi dio. Garestia da eta diru bilketari ekin dio. Eta Olatzagutiako eskola komunitateak bat egin du diru bilketarekin, ebakuntza haurrarendako eta

Ekarpenak egiteko kontu korrontea

ES33 2100 5365 2301 0002 9770

bere garapenerako ona izanzen dela uste dutelako. Eskola komunitatea laguntza eskaintzeko prest azaldu da eta diru bilketan laguntzen ari da.



Nicole apirilean operatuko dute.

>> Uharte Arakil

36ko gertaeren memoria jasotzeko deia

Gaur, 19:00etan, Uharte Arakilgo udaletxean batzar irekia egingen da

Aranzadi zientzia elkarteak kideek berriki Ibero 1936ko estatu kolpean eraildako hainbat pertsonen hezurdurak opatzeko indusketa egin dituzte. Haien artean hiru uharter daude. Horiek eta beste gertaera batzuk izan ziren Uharte Arakilen 1936an. Horiek guztiak kon-tuan hartuta, uharter talde batek batzar irekirako deia egin du. Helburua, "uharterrekin elkarrekin gure herriaren memoria idaztea da. Memoria, justizia eta erreparazioa guztion artean egin dezagun".

>> Altsasu



Gure Etxea eraikinean jarritako informazio panela.

Informazio panelak, jarriak

Altsasuko Udalak zazpi informazio panel jarri zituen urteko azken astean. Udalak onartutako garbiketa bertikalerako egitasmoaren barruan herritar eta erakundeek kartelak jartzeko informazio panelak jartzea erabaki zuen. Zazpi panel horien kokapena honakoa

da: Gartzia Ximenez kalea (udal-etxe parean), Foru plaza (Gure Etxea eraikinaren ondoan), Arkangoa kalea, San Juan kalea (Once-ren kiosko ondoan), Intxostiapunta eraikinaren sarrera ondoan, Erkunden kalea eta Iortia kultur gune ondoan.



>> Bakaiku

Lanengatik, frontoia itxita

Bakaikuko Udalak jakinarazi du Iturrarte frontoia zenbait egunez itxita egonen dela. Haizeteek pilotaleku sabaiko isolatzailea mugitu zuten. Hura konpondu eta sarea ixteko lanak egiten ari dira. Segurtasunagatik frontoia ixtea erabaki du udalak.

>> Iturmendi

UTZITAKOIA

Gaztetxea aurrera

Bost urte eta gehiago betetzeko asmoz, Iturmendiko Gazte Asanbladak larunbatean gazte egoitzaren hamarkada erdia ospatu zuen. Giro ederrean joan zen ospakizuna eguerditik ordu txikiak arte.



>> Olatzagutia

Udalaren hirigintza aholkularitza

Olatzagutiako Udalak hirigintza aholkularitza kontratatuko deialdia egin du. 40.320 euro bideratu ditu horretara. Urte baterako kontratua izanzen da, gehienez ere lau arte luzatu daitekeena. Interesatuak euren eskaintzak otsailaren 5era arte aurkeztu ditzakete.

» Olatzagutia

Gaztetxokoa sortzeko sinadura bilketa

Udalari gaztetxokoa sortzeko lokala eskatzen diote

Gurasotalde batek sustatu du gaztetxokoa sortzeko sinadura bilketa. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta legoke lokala. Jasotzen dituzten sinadurak udalari aurkeztuko dizkiote, gaztetxokoa sortzeko lokala utz dezan. Guraso horiek argudiatzen dutenez, adin horre-

tako gaztetxoak "gurasoez lagunduta jolasteko helduak dira eta eskaintza ludikoa dagoen beste toki batean sartzeko gazteegiak dira".

Sinadura bilketaren sustatzaileek diotenez, "zerbait egiteko Olatzagutian nahikoa gazteria dugu eta, horrela, herrian gelditzea lortzeko; kanpora joateko

tentazioa kenduz, esaterako, Altsasura, non eskaintza ludikoa baduten". Negu "luzean" gaztetxo horiendako inolako espaziorik ez dagoela gaztigitatu dute gurasoek. "Igandean kiroldegia itxita dago eta frontoiaren erabilera adinduendako arautua dago. Igande euritsu eta hotzetan zer egiten dute?



Gaztetxoak baloiarekin jolasten. ARTXIBOA

Sei tabernek elkartea sortu dute

Infernuko erreka elkarteak logotipo lehiaketa antolatu du

"Gauza oso txarki dago. Astegunetan oso gutxi ateratzen da. Ia pixka bat mugitzen den eta jendea ateratzen hasten den". Horregatik sortu dute Olatzagutiako sei tabernek Infernuko erreka elkartea. Hala azaldu digu Clinker tabernako Patxi Aldaz Zufiarrrek. Harekin batera elkartean Erburua, Barandi, Aixeleku, Bujanda eta Agedi taberna eta kafetegiak daude. Duela bi hilabete inguru sortu zuten elkartea eta Olatzagutiako toponimiara jo dute elkartearendako izena hartzeko. Elkartekideak lanean "gogoz" hasi dira.

Elkarrekin hainbat ekimen

aurrera eraman nahi dituzte. Ostiraleroko pintxo-potea eskaintzen dute Infernuko erreka elkarteko tabernek. Eta bi hilero, hilabetezko azken ostiraleko pintxo-potea berezia izanen da. "Egun horietan taberna guztien artean zozketa bat egingen dugu eta bezeroen artean saria banatuko dugu". Aurreneko zozketa otsaila akaberan izanen da.

Logotipo lehiaketa

Elkarteko tabernen irudia izanen dena aukeratzeko Infernuko erreka kideek logotipo lehiaketa antolatu dute. Berau Infernuko erreka elkartearen informazioaren zabalkunderako kartel eta beselakoetan erabiliko dute. Logoti-



Olaztiarrak kalean, joan den urteko festetako lehen egunean.

poan ezinbestean elkartearen izena agertu beharko da: Infernuko

erreka.

Lehiaketan edozeinek parte

har dezake, baina gehienez bi proposamen aurkez ditzake. Diseinuak jatorrizkoak eta argitaratu gabek izan beharko dute.

Plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira proposamenak. Gutun-azalaren barruan egon beharko dute: logotipoa A4 tamainara eta kolorez inprimatua edota .JPG formatuan proposamena duen CD-Rom-a eta egilearen datuak dituen gutun-azala. Guztiek izentzikia dutela. Lanak Infernuko erreka elkarteko sei tabernetakoren batean aurkeztu beharko dira otsailaren 15erako. Tabernariak beraiek izanen dira epaileak. Olatzagutiako establezimenduetan gastatzeko 120 euroko sari bakarria izanen da.

Eskailera berriak egiten

Inguraketa kaletik Erburua kiroldegiko tabernara eta Otadia kalera eramaten duten eskailera berritze-lanak egiten ari dira egun hauetan. Aurretik zeuden eskailera gaizki zeuden eta udalak guztiz berritzea erabaki zuen. Lanak iraun bitartean kaskailuz egindako arrappa batetatik egin daiteke gora eta behera.

Construcciones Noveleta enpre-

sa ari da lan horiek egiten. Bestalde, Inguraketa kalean, Portuko eta Kale kaleen artean, espaloia eta sareak egiteko lanak despeditu berri ditu. Kiroldegiko lanetatik 26.800 euro jasoko ditu eta espaloiarengatik 24.200; guztira 51.000 euro.

Hirugarren urtez, 2015ean, Olatzagutiako Udalak kaleetako arkitektura-oztopoak kentzeko lanak egin ditu. San Ignazio kalean zeuden

espaloietan beheratzeak egin dira eta ez zegoen tokian espaloia egin dute. Lan horiek beste batzuk egiteko udalak joan den urtean bi langabe, kisugilea eta peoia, sei hilabete eta erdiz kontratatu zituen. Kontratazioarako udalak 32.500 euro jarri zituen eta Nafarroako Gobernuaren 17.500 euroko laguntza jaso zuen. 50.000 euro guztira bideratu ziren kontratazioetara.



Kiroldegi ondoan egiten ari diren eskaileretako lanak.

Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



laurantzaleak

GUAIXE.EUS

107.3 FM
BELEIXE



URTARRILAK 23, LARUNBATA
Altsasuko Gure Etxean
19:00etan, bertso-merendua

BOTA LASAI
(Altsasu)
Aitziber Grados
Idoia Granizo
Ekain Alegre
Joxema Leitza

XIRISTI DRIMTIM
(Iruñea)
Xabier Terreros
M. A. Ortiz de Guzman
Unai Uberetagoena
Xabier Zarraluki

Informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.EUS

>> Unanu



Berriain mendi azpian Unanu, Dorraorako errepedetik.

Hondakinen kudeaketa proiektuari buruzko galdeketa

Igandean, 11:30etik 14:30era, kontzeju-etxean unanuarrek iritzia emateko aukera izanen dute

Eraikuntza hondakinen kudeaketa eta birrintze planta Unanun egin dadin nahi duzu? Bai edo ez? Galdera horri erantzuna emateko aukera izanen dute igandean ehun bat unanuarrek. Unanuko Kontzejuak 18 urtetik gorako eta herrian errol-datutaduden unanuar guztiei herri galdeketa parte hartzerantz animatu ditu. Javier Mozo kontzeju buruak azaldu digunez, aldeko edo kontrako erantzuna agertu, kontzejuak herriaren erabakia bere eginen du.

Unanuko untxi granjaren ondoren (Dorraorako errepede ertzean) eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatzeko instalazio bat jartzeko proiektua dago. Kokapenak unanuarren artean kezka sortu du, jarduera horrek sor ditzakeen zaragatik, hautsagatik, produktu kutsakorren kudeaketagatik, gertu dagoen errekan izan dezakeen eraginagatik eta abar. Unanuarrek abenduaren 13an egin zuten batzarrean proiektu bera ez zuten zalantzan jarri, baina larre horretan beharrean industrialde batean hobe ikusi zuten.

Plataforma

Proiektuak unanuarren artean kezka sortu du eta Ergoiena Bizirik plataforman antolatu dira haietako batzuk. Bere ordezkariak kontzejuarekin bi bilera egin dituzte. Ergoienako Udalarirenekin ere mozioa aurkeztu diote. Aldi berean, proiektuaren kontrako sinadurak biltzen hasi dira, Unanun eta Ergoienan momentuz. Ergoiena Bizirik plataformak, bestalde, urteko azken astean birziklatze planta hartuko duen larrean hondakinak bota zituztela publikoki salatu zuen.

SAKANA

Mank-ek hondakinen tasan hobariak onartu ditu

Hobariak eskatzeko epea urte guztian zabalik dago. Eskaera onartzen den unean urte baterako ezarriko da hobaria eta urtero berritu beharko da. Mank-en Lakuntzako egoitzan aurkeztu behar dira eskaerak

Sakanako Mankomunitateak hondakinen bilketa zerbitzuko tasak aztertu eta hobariak zehaztu zituen abenduaren 23an egindako bilkuran. Mank-en araudian lau kasutan onartzen dira hondakinen bilketa tasetan hobariak aplikatzea. Hala, Gizarte Segurantzaren edo Nafarroako Mendekotasun Agentziaren onuradunek kuota berezia izanen dute. %100eko hobaria izanen dute Efektu Anitzetarako Errenta-Adierazle Publikoa (EAE-AP) edo hori bider 1,3 eginez ataraten den kopurua gainditzen ez badu.

%100eko hobaria ere izanen da eskatzaileek ezkontide edo gisa bereko bizikidea duenean eta bien diru sarrerak 1,35 aldiz EAEAPa gainditzen ez duenean. Hobari bera izanen dute 23 urtera arteko seme-alaba langabeak, ikasleak edo diru-sarrerarik gabeko ezgaituak dituztenak ere. Menpeko lagun bakoitzeko EAEAPa 0,23 handituko da. Eskabidearekin batera, jasotako prestazioaren egiaztagiria, errenta aitortpena edo Ogasun Departamentuaren



agiria, eskatzaileen edota bizikideen diru sarreraren egiaztagiriak eta udaleko errolda egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Hiru gehiago

Hondakinen tasan erabateko hobaria izanen dute etxe bat bota eta beste bat jasotzen ari diren bitartean. Froga-agiri gisa udalak emandako ziurtagiria erakutsi beharko da. Bestalde, hutsik dauden etxebizitzak jabeen hobaria %70ekoa izanen da. Horretarako, etxebizitzak ur eta argi zerbitzurik ez duela frogatu beharko da. Azkenik, %100eko hobaria izanen dute etxetik edo lokaletik 500 metro baino gehiagora edukiontzia edo hondakinak biltzeko euskarriak dituztenek.

SAKANA

Madrialdik Sakanara hondakin bilketa sistema ezagutzera

Buitrago de Lozoyako alkate eta Lozoyako Iparraldeko Mankomunitateko lehendakaria den Angel Martinez (PP), Mariano Juan Perez Picazo teknikaria eta Lozoyako Iparraldeko garapen agentea ibarra bisitatu zuten astelehenean. Sakanako Mankomunitateko ordezkariekin elkartu ziren eta haiek ibarrean martxan jarritako

hondakinen gaikako bilketa zertan datzan azaldu zieten. Europako Valorg proiektuaren eta hondakinen kudeaketarako eskola tailerraren berri ere eman zieten.

Bi orduko hitzaldiaren ondoren, madrildarrei hondakinak zintzilikatzeko zutabeak eta Irurtzongo auzo-konpostaguneak erakutsi zizkieten. Bisita Arbizuko

hondakindegian despiditu zuten. Sakanako ordezkariak euren kezka ere jakinarazi zieten bisitariari: tokiko administrazioek euren hondakinen kudeaketa proiektuak garatzeko dituzten zailtasunak eta ezarritako tasak zigor ekonomikoa direla, sortutako hondakin kopuruaren arabera pagatzen ez delako.



Madrildarrak eta haiei harrera egin zieten sakandarrak. UTZITAKOIA

>>

Independentistak bide-orria zehazten

Hurrengo bi urteetarako plana Aberri Egunaren aurretik zehaztu nahi dutela aurreratu dute, "mugimendu independentistaren jauzi indartsu baterako oinarria finkatzeko".

Independentistak Sareak hurrengo bi urteetarako plan estrategikoa zehazteko prozesua Lakuntzan abiatu zuen larunbatean. Lakuntzako topaketa irekiko helburua independentziaren aldeko

mugimenduaren azken urteotako ibilbidearen balantzea egin eta aurrera begira egin beharreko urratsak zehazten hastea zen. Horretarako, bildutako iritziak eta ekarpenak jaso zituzten. Bileran "emankorra" izan zela azaldu zuten sareko kideek.

Larunbatean, lehenik, Independentistak Sareak egindakoaren balantzea egin zuten, lorpe-

nak, helburuak, gabeziak eta ahuleziak mahaigaineratuz. Ondoren, egungo egoera eta aurrera begira zehaztu beharreko lan ildoak aztertu zituzten. Eta horretarako kontuan hartu zituzten: gako estrategiko eta ideologikoak; jarduera ereduak, ekimenak eta mobilizazioak; antolaketa eta mugimenduaren hedapena. Aurtengo plangintza ere zehaztu



Sareak deitutako topaketa irekiko bilkuretako bat. UTZITAKOIA

zuten. Haren baitan jasoak gelditu dira, besteak beste: Aberri

Eguna, herri galdeketa, Kataluniako prozesua eta abar.

Lakuntzan, san saastinak

Lakuntzarrek San Saastin ermitarako erromeria herenegun egin zuten. Astearteko eta asteazkeneko ospakizunen ondoren, neguko festek gaur eta bihar izanen dute segida Lakuntzan

Egitaraua

>> Ilbeltzak 22, ostirala

15:00etatik 20:00etara Puzgarriak frontoian.

20:00etan Auzatea.

20:00etan Dantzaldia Bull dj-rekin.

20:30ean Zezensuzkoa.

00:00etan Dantzaldia Bull dj-rekin.

>> Ilbeltzak 23, larunbata

12:00etan Piperropilak.

12:45ean Erraldoi eta buruhandien kalejira.

13:00etan Piperropil txapelketa.

13:00etan Aizkolariak eta harri-jasotzaileak, frontoian.

13:00etan Auzatea, plazan eta frontoian.

13:00etan Buruhandiak.

17:00etan Sakanako pilota txapelketako finalak.

18:30ean Karrika-dantza, kultur etxean.

20:00etan Auzatea eta buruhandiak.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Egan taldearekin.

20:30ean Zezensuzkoa.

00:00etan Dantzaldia Egan taldearekin.



San Saastin Aldaba herriko azken aztarna

Larraitz Amadoz Lazkano

San Saastingo ermita aski ezaguna da lakuntzarren artean. Aralar mendizerren magalean kokatzen da, herritik urrutien dagoen base-liza da, izan ere, herrian San Anton ermita ere badago hilerriaren ondoan. San Saastinen kokalekua kontuan izanda, bertatik ikus daitekeen paisaia ikusgarria da, atzean Aralar mendizerra eta, aurrez aurre, Berianen handitasuna ezin hobeto ikus daitezke. Sakanako bailaraz gozatzeko eta barru barrutik sentitzeko leku paregabea. Lakuntza herritik urruti xamar dago, eta horrek ere badu bere arrazoia, baina denboran atzera egin beharra dago hori argitzeko.

Kondairak dioenaren arabera, garai batean, San Saastin ermita Aldaba herriko eliza izan zen. Gaur egun ez dago herri hartako arrasto nabaririk, hau da, garai hartako etxerik ez dago, zutik geratzen den bakarra San Saastingo ermita izanen litzateke. Dokumentuetan aurkitutako datuen arabera XVI. mendekoa da base-liza, baina ondorengo mendeetan hainbat zaharberitze egin dituzte eraikinean. Hasiera batean ermitaren eraikuntza bakarrik zegoen, baina orain dela hamar-kada batzuk estalpea eta beheko sua egin zuten. Horrela, ez da ospakizun erlijiosoetarako erabiltzen lekua bakarrik, lakuntzar ugari gerturatzen dira bertara merienda eta gosariak egitera.

Dena dela, kondairak esaten duenaren arabera Aldaba herriaren azken aztarna izanen litzateke San Saastin. Bertako biztanleak desagertu egin ziren, batzuek diote izurriteren baten ondorioz ia herri osoa hil zela, baina arrazoi desberdinak entzun izan dira. Emakume bat izan zen bizirik geratu omen zen bakarra. Egoera hartan,



emakumeak laguntza eske joatea erabaki zuen eta Lakuntzan eman omen zioten babes. Emakume hark Lakuntzari utzi zizkion oinordekotzan Aldabako lurak, baita San Saastingo ermita ere, herriak emandako babes eskertzeko.

Kondairak dioenetik urte asko pasa dira, baina hala ere, baselizak herritarren topaleku izaten jarraitzen du. San Saastin, Lakuntzako patroia, ilbeltzaren 20an ospatu egiten da, eta egun handi horretan erro-

meria egiten dute Lakuntzarrek baselizara. Goizeko 11:00ak aldera, udalbatza, Lakuntzako bandera eta ikurrina eskuan dituztela, apaiza eta trikitixen doinua jarraituz baselizara joaten dira. Eguerdian meza ospatzen da eta, ondoren, txistorra, txokolata, piperropilak eta ardoa banatzen dira. Bertan musikaz gozatzeko aukera izaten dute gerturatzen diren herritarrek, eta bazkaltzeko orduan herrira itzultzen dira.

Baselizaren zaintza



San Saastin eguna baino lehenago prestaketa lanetan aritzen dira herriko hiruzpalau pertsona. Marisol Larrañagak urte asko daramatza Lakuntzako San Saastin ermita garbitzen, txukuntzen eta aurretik egin beharreko prestaketa lanetan laguntzen. Herriko hainbat lagun aste bat lehenago elkartzen dira eta ermitako lurra garbitzen hasten dira. Eserlekuak eta bankuak garbitzeko ere baliatzen dute. Bidean ateratzen diren belar txarrak kendu eta inguruko eremua txukuntzen dute. Gustura aritzen dira, eta ilusioz eta alaitasunez bizitzen dute patroia eguna. Egunean bertan, hiru santu eramaten dituzte ermitara, San Saastin, Santa Juliana eta San Agustin, eta lore batzuekin ere apaintzen dute baseliza. Egunean bertan eramaten dituzte santuak, behin baino gehiagotan atea belarri egin dutelako, eta arriskurik izan ez dadin beste leku aproposago batean gordetzen dituzte urtean zehar. Agorrieko festak bukatu eta hurrengo igandean meza egiten da ere San Saastinen. Festak ongi pasatu izanagatik eskerrak ematen dizkiote patroia bertara joaten diren lakuntzarrek. Egun horretan ere, ardoa eta gazta banatzen dute. Mendez mende baselizak esanahi berezia izan du lakuntzarrendako eta, aurten ere, topaleku berezia bihurtu da.



Danbor hotsak aurrera

Larraitx Amadoz Lazkano

Lakuntzan danborraren hotsak aspalditik dauka bere lekua San Sastinetan. Garai batean kristalezko botilak erabiltzen ziren ere, baina gaur egun soilik danbor soinua da nagusi. 26 urteetenik gabe, ilbeltzaren 20an gaueko 12etan lakuntzarrak bildu ziren herriko plazan. Lakuntzako Pertza elkartetik sukaldariz jantzita atera ziren danborradako kideak, txano eta gerriko gorriarekin.

Koadrila baten ideia

Danborrada bat egitearen ideia 1990. urtean sortu zen lagun koadrila baten inguruan. Asmo horrek forma hartu eta urte hartako San Saastin jaietan irten ziren lehen aldiz Lakuntzako kaleetan. Lehen urte hartan sekulako izotza zegoen. Bakoitzak etxetik ahal zuena ekarri zuten, danborrak, tinbalak, kristalezko botilak, txirulak... denetarik. *San Saastin Martxa*, esaterako, herriko akordeoilari batek mikrofonoaren laguntzaz jo zuten. Horrela, musikaren doinu-

rekin herrian barna aritu ziren. Lehenengo urteetan kalejiran ibiltzen ziren Lakuntzako kaleetan, baina ilbeltzeko hotzak direla eta azkenean plazan soilik jotzea erabaki zuten. Horretaz aparte, hainbat pieza jotzen dituzte elkarteko ateetan.

San Saastinetako danborradan ez da inoiz jenderik falta izan. Hasierako urteetan ehun pertsonen parte hartu zuten, geroxeago, urteen poderioz, kopuru hori jaitziz joan egin da, baina gaur egun, hirurogei lagun biltzen dira oraindik ere. Danborrada egiteaz aparte, 1997an ohorezko txanoak banatzen hasi ziren. Lehenengo txanoa danborradan parte hartu zuen lehen emakumeari eman zitzaion. Ordutik urtero banatu dituzte ohorezko txanoak, herriagatik lan egin duten pertsoneri.

Entseguak

Urtero bezala, danborrada behar bezala prestatzeko aurretik entseguak egin dituzte. Ilbeltzaren 11n egin zuten lehen entsegu eta aste osoan zehar kultur etxean bildu

ziren iluntzeko 20:30ak aldera. Danborradaren hastapenetan zine zaharrea egiten zituzten entseguak, ondoren Lakuntzako Pertza Elkartean, eta zinea zaharberri-tutenean bertara itzuli ziren. Gustura daude azken leku horretan, halaxe kontatu dute Ricardo Aretak eta Joxe Floresek, danborradako antolatzaileek. Diotenez, entseguak ezinbestekoak dira plazako danborrada ezin hobeto ateratzeko. "Akustika aldetik ere leku aproposa da, espazio zabala dago eta askoz ere erosoagoa da lekua" adierazten du Floresek.

Pieza berria

Plazan jo behar dituzten piezak aurretik ederki ikasten dituzte, eta aurten ere buru belarri aritu dira. Urtero jotzen dituzten, *San Saastin martxa, dianak, Tatiago, Biribilketa*, edota *Iriyarena* piezak entzuteko aukera izan zen asteartean, eta haiekin batera, aurten pieza berri bat estreinatu zuten, *Lantzeko zortzikoa*, danborradan doinu herrikoiak jaso nahi dituztelako.

Ander eta Joseba Ganboa gogoan



Haien senitartekoez jaso zuten ohorezko txanoa

Festa ederrak opaz, herri kiroletan ezaguna, danborradako kide eta hamaika saltsan dagoen Jesus Mari Arzak piztu zuen san saastinetako etxajua asteartean. Segidan txikien danborradak hartu zuen plaza. Danborrada nagusia gauerdian hasi zen. Ricardo Aretaren aginduetara danborrarietako ilusio handiz ohiko piezak jo zituzten. Aurten, estreinakoz, *Lantzeko zortzikoa* ere jo zuten Ozarki txarangaren, Haize Berriak bandaren eta herriko gaiteroekin. Omenaldiak beti dira bereziak, eta aurtengoa gehiago: joan den urtean ehiza istripuan zendutako Ander Ganboa arbazuarra eta haren anaia Joseba omendu baitzituen danborradak. "Aurten danborradaren 26. urtea da. Tinko gaude, familia moduan, betiko aurpegiak ikusten ditugu eta baita aurpegi berriak ere. Tama-

lez, kideak galtzen hasiak gara ere. Hori da Ander Ganboaren kasua. Ander eta bere anaia Joseba txikitatik hasi ziren danborradan. Aitak danborra erosi zien eta zenbait urtetan gurekin jotzen aritu ziren. Euren danborrak Lakuntzako Pertza elkarteari utzi zituzten, danborjole berriek erabili zituzten. Aurten gurekin ez dagoen Anderri eskaini nahi diogu ohorezko txanoa, eta baita bere anaia Josebari ere. Anderren falta sumatzen dugu. Gaur bere danborrarekin jo dut, eta neskatila batek jo du Josebarena. Gure gaurko errekonozimendua euren dako da" adierazi zuen danborradako antolatzaileetako bat den Joxe Floresek. Josebaren neskalagunak, Goiezeder Ariztimuñok jaso zuen txanoa, bi mutilen danborrak aurrean zirela, eta familiaren partetik "eskerrik beroenak" eman zizkieten lakuntzar guztiei.



CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
 Etxeko Obradorea:
 Tripota, tripotxa,
 mihia, Kalluak,
 Saltxitxak, Frituak
 Herriko Plaza 9 Lakuntza 948 576 067

TANIA
 ARRAINDEGIA
 Ongi pasa festetan!
 948 576 300
 Mikel Arregi, 6
 LAKUNTZA

MENDIGAIN URBEIAZPIROAK
 948 576 286
 Mendigain kalea, 5
 LAKUNTZA

Etenik gabeko Alkate-dantza



Larraitz Amadoz Lazkano

Alkate-dantza Lakuntzan, aspalditik San Saastin egunean eta Korpus egunean dantzatzen da. Asteartean ere kintoei dantza eskaini zieten alkateari eta zinegotziei.

70eko hamarkadan berreskuratu egin zen Alkate Dantza, herriko jendeak hala nahi izan zuelako. Urte askotan galduta egon zen, eta Frankismoaren azken urteetan berreskuratze lanetan hasi ziren. Euskal kulturak sekulako berpizkundera bizitzen zuen garaian, Lakuntzan ere ez ziren atzean geratu. Kepa Aranberri La Salleko fraideak eta Deustuko Bihotz Alai dantza taldeak gogotsu lan egin zuten Lakuntzako gazteekin batera alkate-dantza berriz ere plazaratzeko. Haien ilusio eta kemenak galdutako doinuak kaleratu zituzten. Emilio Anduezak irakatsi zien Lakuntzako gazteei galdutako Alkate-dantza eta Ingurutxoak. Horrela, berriz ere, gaur egun arte Alkate-dantzak Lakuntzan ez du etenik izan. Gauregun kintoei dantzatzen dute herriko plazan urtez urte.

Garai batean, San Saastin egunean, hau da, ilbeltzaren 20an, herri-bazkaria egin eta gero mutilak udaletxeko atera joaten ziren alkatea, zinegotziak eta udaltzaina itxoitera. Zahagia, bi pitxer eta

barkilloak eskuan zituztela udaletxeko atean biltzen ziren zain. Udaltzarak opari gisa ardoa banatzen ziren dantzarietara eta baita gerturatu ziren ikusleei ere. Behin udalbatza jaisten zenean, udalaren aurrean zegoen etxe batean jartzen ziren eta hantxe bertan, mahai batean gazta eta ogia banatzen zuten lekuan geratzen ziren. Udaltzain batek zahagia eramaten zuen eta besteak, bi barkilloak eta pitxerrak, txistulari batek Biribilketa pieza jotzen zuen eta dantzariak salto artean udalbatza laguntzen zuten. Udalbatza eseri eta lekua hartzen zuen momentuan, mutilak nesken bila joaten ziren Alkate-dantzari hasiera emateko. Batzuetan lerroko bigarren mutila nesken bila joan egiten zen, eta noizbait ere mutilek lehenago bakarrik dantza egiten zuten eta ondoren neska eta mutilek batera.

Korpusegunean ere dantzatzen da Lakuntzan Alkate-dantza herrian. Corpus Christi (Bestaberri) egunean prozesioa egiten da urte horretan Lehen Jaunartzea egin duten haurrek lagunduta. Herrian hautatutako leku batean aldea jartzen da, bedeinkapena emateko, eta haurrek lore-hostoak eskaintzen dizkiote guztiz santuari. Garai batean balkoiak banderakin edota izarekin apaintzen ziren

eta prozesioa igarotzen zen kaleetan belarra eta San Juan gauean ohikoak diren loreak eta iratzeak botatzen ziren.

Dantzaren ezaugarriak

Neskek ekarritako zapien bidez, neska-mutil dantzarien artean lerro bat osatzen da. Dantzaren inguruko datuek esaten dutenaren arabera, neskek etxeko zapirik politenak ekartzen omen zituzten plazara. Sokako lehenengoa, maiordomoa, alkatearen familiakoa izaten zen, eta hala ez balitz, udalbatzako senide bat izan behar zen. Ondoz gero, neskek ere, ezaugarri berdinak bete beharko lituzke.

Dantzariak osatzen duten soka udalbatzaren aurrean kokatzen da eta txistularia, berriz, sokako lehen mutilaren ondoan jarriko da. Maiordomoa, lehenengo nesken ondoan jarriko da eta bi hauek eskutik zintziliek duten zapiarekin lotuta egonen dira. Txistulariak Alkate-dantzaren sarrera jotzen duenean, maiordomoak eskuin aldera bira emanen du eta udalbatza agurtzeko txapela kendu egiten du. Lehen doinua entzundakoan, leku berean eta txapela eskuan duela, maiordomoa dantzan hasiko da. Sarrera honetan, ondoko neskek ere dantzatu egiten du eta sokan dauden gainontzeko dantzariak geldirik egonen dira.

Dantza zaleak, ongi etorri

Bihar, 18:30ean, kultur etxean Karrikadantza

Euskal dantzak ikasteko eta haiekin gozatzeko aukera. Horixe eskaintzen du Karrikadantzak. Eta Karrikadantzak Iruñetik Sakanara salto egiten du bihar. Zaldiko Maldikok, Euskal

Dantzarien Biltzarrak eta Karrikari, Iruñeko euskaldunen topagunea, antolatzen dute Karrikadantza. Hileko hirugarren larunbatean, 18:30ean, elkartzeko dira dantzaldi zabala egiteko: dantza jauziak, dantza lotuak, jotak, arin arinak... Euskal dantzak karrikara atera

dituzte horrela. 2011ko apiriletik aurrera, arrakastaz.

Iruñerrietik Lakuntzarako bidea egin du Karrikadantzak eta Lakuntzatik dantzazale sakandar guztiei gonbitea luzatu diete. Lakuntzako kultur etxean bihar, 18:30etik aurrera, euskal doinuak entzuten dira eta aire horiek dantzatzeko aukera izanen da. Baita ez dakienak ere. Izan ere, gidari batek dantza pausoak azalduz joanen da, jendeak dantza egin dezan. Dantza zaleei, beraz, ongi etorria egiten diete Lakuntzan, bihar.



San Saastin onak pasa!

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 - 948 567 331
LAKUNTZA

Ongi pasa San Saastinetan!

Aliprox

948 576 246
Larrañeta z/g
LAKUNTZA

Ongi pasa sansaastinak!

LAKUNTZAKO TABERNAK
Apur Ogi berri - Lagun Artea - Lakuntzako ostaturia



Errezeta

Osagaiak:

- Arrautza dozena bat: sei arrautza osorik, beste seiren gorringoa bakarrik.
- Kilo bat azukre
- Kilo bat irina
- Anis aleak
- Anis likido pixka bat
- Kanela pixka bat

Egikera

Lehenik arrautzak eta azukrea bota, ondoren, irina gutxinaka-gutxinaka bota eta ore loditu, dena nahastuz. Behin oreak loditasun nahikoa hartu duenean zatika hartu eta opilak egin. Opil bakoitza talo-burnian jarri eta suan egin. Labean ere egin daiteke, baina ore gogorragoa geratzen da.

Aholkua: ore ordu batzuk lehenago eginda hobe egiten dira opilak, momentuan eginda itsasteko arriskua dagoelako.

Piperririk gabeko opila

Larraitz Amadoz Lazkano

San Saastin jaietan anis usaia izaten da Lakuntzako sukalde batzuetako protagonista. Arrautzak, azukrea, irina, anisa eta kanela ere zenbaitek erabiltzen dute piperris egiteko. Nahiz eta izenak piperraren zantzuak ematen dituen, osagaien artean ez da inondik ageri piperra. Opil gozoa, fina eta urtez-urte bere funtzioa aldatuz joan bada ere, beti jende artean ibili den jakia izan da.

Garai batean, eta harrez geroztik elurte batzuk erori dira

Lakuntzan, San Saastinetan neska batek mutil batekin dantzatzen zuenean, jaiak bukatu eta hurrengo igandean piperris oparitzen zion mutikoari. Hamarkadaz hamarkada piperris opilak eskutik eskura, gizartea eta errealitatea aldatzen doan heinean, ohitura horiek galdu egin dira. Hala ere, piperris opilak bizirik dirau eta Lakuntzako sutondoetan egiten dira gaur egun. Familia, lagun eta ezagunen artean banatzen dira eta, batez ere, aipagarria da San Saastin egunean ermitan Lakuntzaren artean banatzen direnean.



Testigantza

Lourdes eta Rosario Soto ahizpek ongi aski dakite piperris egiteko errezeta. 2010ean lehen aldiz aurkeztu ziren jaietan egiten den piperris lehiaketara eta lehenengo urtean irabazi egin zuten. Harrez geroztik urtero aurkeztu egin dira eta hiru aldiz irabazi dute, 2010ean, 2014an eta 2015ean. Aurten ere berriz ere aurkeztuko direla aipatu dute -bihar izanen da txapelketa- eta gogotsu ikusten zaie bi ahizpei.

Lakuntzako etxe batzuetan betidanik piperris egitea ohitura izan den bezala, beste batzuetan ez da hala izan. Rosario eta Lourdesek bere laguna Kontxi Arbizurekin ikasi zuten errezeta. 2010. urtean erabaki zuten lehiaketan parte hartzea, baina aurretik ere hasi ziren jaki gozoak egiten. Arrautzak, azukreaz, irinaz, anisaz eta kanelaz egindako ore egitea erraza dela diote, baina sutondoan egosi behar denean, hor izaten dituzte oztoporik zailenak. Sua modu berezian jarri behar da, izan ere, askotan arretaz ibili ezean, erre alagordina gera daiteke. Talo-burniaren gainean opila jarri, sua goiko aldean jarri egin behar da eta beheko aldean berriz txingarrak. Behin suan eginda dagoenean, hozten utzi eta jateko prest egonen litzateke.



SAKANA

Telefono seinaleak telebistarenean eragin dezake

4G teknologia abiadura handiko mugikor konekzioak ahalbidertzen ditu. Eta horrekin batera eraikinen barruan seinalea hobetzen da eta landa eremuetan batez ere barneratze geografikoa handitzen du. Telefonía enpresak 4G teknologia instalatzen ari dira egun hauetan.

Etxarri Aranazko Udaletik jakinarazi dutenez, teknologia berriak telebistako antenan eragina izan dezake. 4G zerbitzuek 800 Mhz frekuentzia erabiltzen dute, lehen Lurreko Telebista Digitala zabalteko erabiltzen zena. Horregatik, etxean telebista antena bidez jasotzen dituztenek seinalean interfe-

rentziak izan ditzakete. Arazoak izanez gero herritarren arretarako telefono honetara hots egin daiteke: 900 833 999. Informazioa www.llega800.es web orrian jaso daiteke. Telebista seinalea zuntza optiko, satelite edo internet bidez jasotzen dituztenek ez dute aldaketarik sumatuko.



Telefonia antena Ergako Trinitate ermitan.



Enneco-ra egindako bisita gidatuetako bat. ARTXIBOA

Enneco egitasmoari buruzko batzar irekia

Sakandarrei dei egin zaie Etxarri Aranazko kultur etxean ostegunean, 18:00etan, eginen den batzarrean parte hartzera

Enneco: Haritzaren memoria egitasmoa 2012ko abenduan aurkeztu zenetik hiru urte pasa dira. Nafarroa Bizirik fundazioko lehendakari Patxi Abasolok azaldu duenez, "geroztik, etengabe joan da gorpuzten auzolan erraldoi hau". Joan den urtean "guztion ilusio-

ari eta lanari esker, egitasmoak ongi bete ditu egin beharreko etxerako lan guztiak. Ondorioz, ziurta dezakegu aurten basoaren behin betiko ematea ekarriko digula". Abasolok aurreratu duenez, egitasmoa gauzatzeko aurten "urrats erabakigarriak" izanen dira.

Memoriaren parkea egitasmoa ibarrean gauzatu ari denez, proiektuaren sustatzaileak Sakanako eragile guztiekin orain arte emandako

urratsak eta aurrera begira ibarretako eta Nafarroako izanen dituen onurak konpartitu nahi dituzte. Horregatik, Etxarri Aranazko ostegunean "proiektuliluragarri bezain ezinbesteko" horri buruzko batzarrean parte hartzera Sakanako eragileak gonbidatu dituzte. Deialdia Nafarroa Bizirik fundazioak, Etxarri Aranazko Udalak, Sakanako Garapen Agentziak eta Cederna-Garalurrek egin dute.



Filma amiantoak eragindako kalteez sentsibilizatzeko

Gaur, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean amiantoari buruzko istorioak jasotzen dituen filma proiektatuko da

Nafarroan amiantoak kaltetutakoak biltzen dituen pertsonen elkarre bat sortzeko bilerak egin dira Altsasun azken bi hilabeteetan. Batzarretan parte hartu duten elkarrearen sustatzaileek argi ikusi dute amiantoak eragindako gaitzak larriak direla eta haien ondorioei elkarrekin aurre eginda helburuak lortzeko aukera gehiago izanen dituztela. Antolatuta dirulaguntzak jaso eta eragin handiagoa lortzeko modua ikusi dute. Elkarre bat sortzeko prozesuan Euskal Autonomi Elkarteko Asvimia elkarrearen laguntza dute nafarrek. Hala, joan den ostiralean

elkarre horren batzarrean gonbidatu gisa izan ziren.

Filma

Gaur, Altsasuko Gure Etxea eraikinean La plaza de la música filma proiektatuko dute. Juan Migel Rodriguez zuzendariaren ama amiantoak eragindako pleurako gaizto baten ondorioz hil zen. Etxeko andrea zen, ez zuen enpresa batean lan egiten. Baina etxetik 10 metrora amiantoarekin lan egiten zuen lantegi baten haizagailua zuen. Hark zabalduak amianto izpiekin gaixotu zen. Aditu batek jakinarazi zion hori guztia Rodriguezi, hil eta gero.

Horrek bulkatu zuen Rodriguezen amiantoari buruzko film bat

egitera. Bera eta anai amantoa ikertzen hasi ziren: joan den mendeko 40ko eta 60ko artean erabili zela jakin zuten, surik hartzen ez zuelako, isolatzaile perfektua zelako, arina zelako eta merkea zelako. Eraikuntzan, automobilgintzan, itsasontzien, trenen eta hegazkinen eraikuntzan erabili zen, baita siderurgian ere. Bere zuntzak arnasteak dakartzan gaitzen berri inork ez zuen orduan.

Rodriguezek sorlekua duen Errenteriatik abiatuta "mila aurpegiko hiltzailearen" pista Gipuzkoako industria handietan barna segitu zuen. Amiantoak eragindako gaitzak zituzten pertsonak eta elkarre bat eta haien borrokak ezagutu zituen gero. Baina amianto-



Amiantoaren kaltetuen elkarrearen sustatzaileen abenduko bilera.

aren zirkulua gero eta handiagoa zen. AEB eta European amiantoaren arriskuez aspaldi gaztigatu zutela jakin zuen. Ibilbidea Indian bukatu zuen, mendebaldeko itsasontzi zaharrak txikitzen dituzten

hondartzetan. Han ikusi zuen lehen munduak hirugarren munduari minbizia eragiten duen material hori saltzen segitzen duela. Amiantoari buruzko istorio mordoarekin osatu zuen filma.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI



948 468 755

ETXARRI ARANATZ

948 461 660

» Urdiain

San Anton kofradia bihar elkartuko da

Urdiaingo San antondarrak bihar elkartuko dira. Eguediko elizkizunak elkartuko ditu kofradeak. Ondoren, soroak bedeinkatu egingen dira. Tintinurri elkartearen gosalduta ondoren, udaletxean batzarra egingen dute kofradeek. Ardurak berriro ondoren, Aitziber elkartearen kofradiaren bazkaria izanen da. Hura despedituta kofradiako lau arduradunen etxetara errondan joanen dira.

» Dorrao

San Anton egunarekin, bilkura

San antondar dorrobarrak larunbatean elkartu ziren. Bezperan kofradiako arduradunak elkartu eta larunbateko gosaria prestatzearekin batera, buruek afaldu egin zuten. Larunbatean, 9:00etan, mezan elkartu ziren kofradeak eta dorrobarrak. Elizkizuna eta gero

kofradiako prioren edo nagusiaren etxean hildako kofradeen ome-nezko erresponsua errezatu zuten. Marin Miranda Otsagabiaren etxean egin zen hori. Bere laguntzaileak Jesus Mari Marin eta Jose Ignazio Lizarraga izan ziren.

Handik Itur-Aldea elkarterantz

jo zuten, batzarra egiteko. Bezperan prestatutako gosaria jan ondoren mahai jokoen txanda izan zen. Bazkaltzera 25 bat kofrade elkartu ziren, direnak. Nagusi berriaren ardura zozketa bidez erabaki zuten eta Juan Lizarraga Pueiori egokitu zitzaion.

» Bakaiku

San antondarren hitzordua

San Anton kofradiako kideak eguediko elizkizunean elkartu ziren larunbatean. Meza irteeran talde argazkia egin ondoren, Bakarrekoetxea elkartearen bazkaltzera elkartu ziren. San Anton kofradiak 98 kide ditu eta 66 izan ziren bazkaltzera elkartu zirenak.

Mahaiaren bueltan, jaten hasi aurretik, kofradiaren martxa errepasatu eta ardurak banatu ziren.

Hala, David Kintanak maiordomo ardura Aingeru Lopez de Zubiria belero izandakoari pasa zion. Belero ardura, berriz, Javier Negrinek jaso zuen. Kofradian azken urtean baja bat egon da, Nicanor Anso hil baitzen. Horren guztiaren berri akta liburuan jaso zuten. Hura 1859tik erabiltzen ari dira. Kofradiak 1715etik 1858ra bitarteko aktak jasotzen dituen beste liburu bat du.



Mezatik atera ondoren eta elkartera bazkaltzera joan aurretik san antondarrak talde argazkirako jarri ziren.

» Iturmendi



Iturmendiko san antondarrak, kofradiako bandera eta guzti.

San Anton kofradiaren bilkura

San Antoneguz, domekan, elkartu ziren san antondarrak. 11:00etako mezan zuten hitzordua. Handik atera eta talde argazkia egin ondoren, apaiz-etxean erresponsua errezatu eta batzarra egin zuten. Kofradiak dituen 24 kideetatik 18 izan ziren bilkuran. Zegokien kuota zehaztu ondoren, kontuak akta libu-

ruan jaso zituzten. Han jaso ziren ere heriotzagatik kofradiak izandako hiru bajak: Constantino Gabirondo, Jose Luis Irisarri eta Juan Jose Legarda. Kofradiako bandera Jesus Mari Galarza Eskisabelen esku geldituko da. Egin beharrekoen ondoren, kofradeak anaitasun bazkaria izan zuten.

» Olatzagutia

San Sebastianak, ospatuta

Elizkizunak eta txokolatea eta auzatea ospakizuneko protagonista

Olastiko San Migel auzoan dago San Sebastian ermita. Olastiko ermita bakarra da, Geltoki auzoko Cementoseko San Jose ermita izan ezik. "Baina San Jose ermita aspalditik ez da erabiltzen. Aspaldi, igandetan meza egiten zuten bertan, Cementoseko langileak meza entzuzera joan zitezten. Orain San Sebastian ermita da dugun bakarra" azaldu digu Lola Ganuzak, San Sebastian ermitako zaindariak.

Lola Ganuzak urte asko daromatza ermitako giltza gordetzen eta ermitaren jarraipena egiten. "Lehen nire amak egiten zuen. Casilda Gonzalez zuen izena eta hain justu 100 urte bete zituen egunean hil egin zen. Adinagatik gehiago ezin zuzenean, ermitaren giltza eta ardura eman zizkidan eta orain arte" gaineratu du Ganuzak. Lolak ermitako giltza



Goizean, meza eta gero, ermitako aterpean auzatea izan zen. Arratsaldean, arrosarioaren ondoren, txokolate-jatea.

gordetzen du, berogailua piztearen ardura du eta beharrezkoa denean ezkila jotzen du. Garbiketa, aldiz, Fermina Vicentek eta Valentxu eta Clarita Lopez ahizpek egiten dute. "San Migel kale-

ko bizilagunek zaintzen dugu ermita. Oso ermita polita da, ongi zaindua dugu. Duela 35 edo 36 urte eraberritu genuen ermita, oso gaizki zegoelako. Lan guztiak auzolanean egin genituen bizila-

gunek. Oso ongi konpondu zen, eta ongi zaintzen denez, oso polita dago. Olastiarrek debozio handia diote San Sebastiani" nabarmendu du Ganuzak.

Hilero, lehen larunbatean, meza

egiten dute San Sebastian ermitan. "Arratsaldeko zazpietan izaten da eta jende dezente etortzen da. Hildakoen aldeko meza asko ospatzen dira ermitako elizkizunetan. Baina egun handiena San Sebastian eguna da" gaineratu du Lola Ganuzak.

Urtero moduan, ermita txukun eta polit-polita zegoen asteazkeneko, San Sebastian egunerako. Eguedian meza nagusia hartu zuen ermitak eta ondoren bizilagunek emandako jakiekin auzateaz gozatu zuten bertan bildutakoek, udalak eskainitako ardo eta freskagarri lagunduta. Arratsaldean, 17:00etan, errosarioa errezatzera bildu ziren Olastiko fededunak ermitan, eta ondoren txokolate jatea izan zen, udalak eskainia. Festak frontoira egin zuen salto ondoren. Ardoa eta gazta banatu zuen udalak, eta trikitalariek eta pandero joleek animatu zuten giroa.



Urteko laburpena iruditzen eta datutan

2015ean Sakanan izan ziren gertakari nagusien bideo errebasoa egiteko aukera duzu honako hiru QR-etan

Sakanerria



Kirola



Kultura



Web orrian bisitatuena

Sakanerria

1. Korrika Sakanan (bideoa)
2. Makina bat sakandar Nafarroa Oinezen
3. Korrika19 Sakanan
4. Arbizuko hiri ihoteak
5. Hasi da mozerro festa Olaztin
6. 2015eko santagedako eguneko argazkiak
7. "Olaztin taberna izateko har hori beti izan dut"
8. Lan istripuan hildakoa
9. Guardia Civilak Fran Balda atxilotu du
10. San Pedron giro ederra

Kirolak

1. Altsasuko BTT Zeharkaldiaren XX. edizioa
2. Lehengusuari eta lagunari eskainitako garaipena
3. 88 sakandar 51. Behobia-Donostian
4. Lagunari eskainitako garaipena
5. Jon Arakama eta Oihan Arnanz Euskal Selekzioarekin Bratislavan
6. Aritz Munarriz lehen sakandarra Zegama-Aizkorrin
7. Arantzazu Larrañaga bigarren emakumea Valle de Tena Trailean
8. Ergako kronoigoera Mikel Rubioren eta Miren Zubietaren
9. Sutegiko futbolari ohien arteko izarren topaketa
10. Sakanako 4x4 Topaketarako atzerakotuan

Kultura

1. Guaixek udako argazkirik onenak sarituko ditu
2. Altsasuk hartuko du aurreneko Nafarroako Trikiti Jaialdia
3. Guaixeren Udako Argazki Lehiaketak baditu sarituak. Zorionak bioi!!
4. Aurtengo kintoen azken zortzikoa
5. Udan dantzan trebatzen
6. Bly, Ziordian egindako ezkongaien jantziak
7. Iturmendin Maiatza jasotzen
8. Soto txiki bihurtu zenekoa
9. Sustrai obraren zati bat (bideoa)
10. Euskal Kantu Jaialdiak Lakuntzan. Arbizuko taldearen emanaldia

www.guaixe.eus-eko
bisita kopurua

	2014	2015
Ilbeltza	5.221	9.835
Otsaila	7.520	12.364
Martxoa	8.394	12.632
Apirila	6.244	9.647
Maiatza	9.476	15.001
Garagarzaroa	10.147	14.167
Garila	8.126	10.640
Agorrila	3.859	6.497
Iraila	7.349	10.973
Lastaila	8.847	11.839
Azaroa	8.662	12.232
Abendua	2.669	9.791
Guztira	86.514	135.618

**Ez ahaztu,
komunitateko kide
egin zaitezkeela!**

Bisiten jatorria

Sare sozialak	57.926
Facebook	40.929
Twitter	16.815
Bilaketak	50.426
Sarrera zuzenak	22.814
Referral	3.595
Besteak	600
Mail	257

www.guaixe.eus



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Felisa Iribas Urriza

(Juan Manuel Moreno Iribas Iñigo Aritzta ikastolako irakaslearen ama)

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
oraindik ere geroan.



Iñigo Aritzta ikastolako
guraso, ikasle eta langileak




Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

ARGIAZE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.eus

**Ander Ganboa Aizpun**

I. urteurrena

Beti egongo zara gurekin.

Zure lankideak

2016-01-24

Eskertzak eta eskelak osteguneko
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).

Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus**Lana/ Negozioak****LAN ESKAINTZA**

Euskara irakaslea behar dut Hezkuntza
Eskolako goi-mailako azterketa prestatzeko.
Interesatuak hots egin dezatela 669 97 63 44
telefonora.

Higiezinak**ETXEBIZITZAK**

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen dut Lakuntzan. 3 gela, 2
komun. Deitu 689 23 27 08 Jose.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Urdiaingo Kaluxa taberna-jatetxea aloka-
tzen da. Tel 680 87 10 18.

Opatutakoak / galdutakoak**OPATUTAKOAK**

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza
hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31.

Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak:
42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kate-
ak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imita-
ziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48.
Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8.
Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

GALDUTAKOAK

Errege egunean Beriain mendian ibiltzeko diren bi
makil galdu nituen, aparkalekuan. Opatu ditue-
nak, mesedez, hots egin dezala 646 88 97 76
telefonora.

Etxarri Aranazen betaurreko graduatuak galdu
ditut. Opatu dituenak, mesedez, hots egin dezala
649 54 58 38 telefonora.

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere
osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongi-
zatea bermatzen duen proiektu euskalduna.
Harremanetarako 620 25 42 30 eta
amalur@amalurelkaratea.org

Benigno omentzeko auzolana. Apirillean
egun osoko omenaldia eginen da Urdiainen.
Proiektutako den ikusentzunezkoa egiteko
argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan
egiteko. Harremanetarako:
benignolagunak@gmail.com

Lakuntzako elkartasun zozketa. Zerbaki sari-
tuak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz
saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393;
ardo loteak, 121, 1886 eta 2376.

Sakanako Belenzaleen zozketa. 324 zb.
Egoitzara joan saria jasotzera.

Etxarriko irakurle taldea. Ilbeltzaren 28an,
ostegunearn, 19:00etan liburutegian elkartuko da
Jose Luis Asensio "Ixa asap!" liburua hizketa-
tzeko.

Irurtzango irakurle taldea. Otsailak 4,
18:00etan, "Juarez en la sombra" - Judith Torrea

Arropa bilketa. Calais-eko errefuxiatuendako:
mantak, lo zakuak, kanpin dendak, neguko arro-

pa. Bilketa puntuak: Beheko Benta, 3. Altsasu.
Astelehenerdik ostiralera 15:45tik 17:45era. Beste
ordutegiak: 660 89 05 45.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan,
Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-
ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan,
17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa
jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua
sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako
laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua
garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen
jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70
10, sakana@cederna.es edo
sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon
laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finan-
tatzaten: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru
ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke:
Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,

JAIOTZAK

• **Nahia Tainta Senar,** ilbeltzaren
15ean Altsasun.

• **Melody Hernandez Lopez,**
ilbeltzaren 15ean Altsasun.

HERIOTZAK

• **Francisco Ureta Garziarena,**
ilbeltzaren 13an Lakuntzan.

• **Alejandro Gurutzarri Gracia,**
ilbeltzaren 13an Lizarragan.

• **Jose Manuel Diaz Zubillaga,**
ilbeltzaren 14an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta
udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez
duenak, han jakinarazi dezala.

Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta

Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Pilota

Irurtzun txapelketetan murgildua

Bihar, 16:00etan, hiru partida jokatu dituzte Irurtzunen

Irurtzun Pilota Klubeko pilotariak praka bete lan daude. Euskal Herriko senior mailako Pilota Ligan ari dira parte hartzen, batetik, eta Espainiako Txapelketako Ohorezko mailan, bestetik. Asteburu honetan bi txapelketa horien barruan ondoko lehiak dituzte jokoan, Irurtzunen.

Biharko partidak

Irurtzungo pilotalekuan, 16:00etan

2 urte azpian: Zudaire-Ustarroz (Irurtzun) / Santesteban-Gil (Estebar)

Armendariz (Irurtzun) / Arrese (San Cristobal)

Ongay-Mariezurrena (Irurtzun) / Azpiri-Tabar (San Cristobal)

Pilota

Nork jantziko ditu Sakanako txapelak?



Sakanako Pilota Txapelketa finalak jokatu dira bihar Olaztin (11:00etan) eta Lakuntzan (17:00etan)

Iritsi da Sakanakopilotari onenak nortzuk diren erabakitzeko unea. Azken asteburuetan jokatu da Sakanako pilota klubek antolatuta

tako Sakanako Pilota Txapelketa. Sakanako pilota klubek lan handia egiten dute pilotariak trebatzen, eta pilotari harrobi polita dugu gurean. Pilotariei, bereziki txikienei txapelketetan parte hartzea sustatzeko sortu zen Sakana-

Sakanako Pilota Txapelketako finalak

Olaztin, 11:00etan:

Txikiak: Lanzarain-Flores (Aldabide) / Miguel-Izagirre (Aldabide)

Umeak 2: Mitxelena-Amillano (Pilotajauku) / Razkin-Lier (Gure Pilota)

Kimuak 2: Lezea-Agudelo (Pilotajauku) / Urbe-Mentxaka (Aldabide-Sutegi)

Haurrak 1: Goikoetxea-Gorrotxategi (Aldabide) / Lopez de Zubiria-Lizarraga (Gure Pilota)

Kadeteak 2: Lima-Mentxaka (Aldabide-Sutegi) / Araña-Senar (Gure Pilota)

Nagusiak: Jokin-Julen (Sutegi) /

Galartza-Arana (Pilotajauku)

Lakuntzan, 17:00etan:

Lagunartekoa: Lakuntza Pilota Elkarte / Eraso Pilota Elkarte (Tutera)

Umeak 1: Amado-Leiza (Aldabide) / Mikel-Eneko (Sutegi)

Kimuak 1: Erdozia-Flores (Aldabide) / Imaz-Garmendia (Aldabide)

Haurrak 2: Arraiza-Elizondo (Lakuntza) / Imaz-Berastegi (Pilotajauku)

Kadeteak 1: Olaetxea-Petriati (Aldabide) / Otxoa-Ganboa (Gure Pilota)

Gazteak: Nazabal-Goikoetxea (Aldabide) / Ramirez-Arbizu (Pilotajauku)

ko Pilota Txapelketa. Bertan Lakuntza pilota elkarteko, Altsasuko Pilotajauku taldeko, Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarteko, Arbizuko Aldabide taldeko eta Olaztin Sutegi taldeko pilotariak lehiatu dira, txikien mailatik hasi-

ta gazteen mailara bitartean. Bihar, larunbatean, txapelkunak nortzuk diren erabakiko da goizeko hamaietan Olaztin eta arratsaldeko bostetan San Saastin festetan murgilduta dagoen Lakuntzan jokatu diren finaletan.



Urrea balio duen puntua lortu dute Ezkurdiak eta Barriolak

Binakakoa. Sailkapena:

Irujo-Rezusta	6 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoetxea	5 puntu
Artola-Albisu	5 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	4 puntu
Ezkurdia-Barriola	3 puntu
Iribarria-Merino	2 puntu
Altuna III.a-Merino II.a	2 puntu
Berasaluze II.a-Beroiz	1 puntu

18 eta 11 gaitzen joan ondoren 19 eta 22 irabazi zieten Olaizola II.ari eta Urrutikoetxeari

Partida ikusgarria jokatu zuten Ezkurdiak eta Barriolak Olaizola II.aren eta Urrutikoetxearen kontra larunbatean. Labrit bete zela eta sekulako giroarekin, afizioa sortzen duen partida eskaini zuten laurak. Txapelketan euren helburua "gozatzea" dela aitortu zuten Ezkurdiak eta larunbateko partidaren gozatu ederra hartu zuten; orain arteko partidari onena jokatu zuten eta urrezko puntua lortu zuten, Olaizola II.ari eta Urrutikoetxeari 19 eta 22 irabazi eta gero.

Ezkurdia eta Barriola izan ziren hasieran aurreratu zirenak (3 eta 6), baina Olaizola II.ak eta Urrutikoetxeak berehala erantzun zuten. 13 eta 11 aurreratu ziren eta segidan 5 tanto egin zituzten jarraian, 18 eta 11 aurreratuta. Bainagutxien espero zenean Aspeko bikotea suspertu egin zen eta zazpi tanto egin zituzten jarraian, euren zaleen zoramenerako, 18ra berdinduz. Barriolak atzeko koadroetan menderatzen zuten eta Ezkurdiak bikain aritzen errematatzen. 19ra ere berdindu zuten. Barriolak tanto ikusgarria egin zuten orduan, piloteo



Victorrek hartuko du Berasaluzeren tokia bihar.

luze baten ostean Aimarren gantxoak bikain erantzun eta gero, pilotazaleak harmailatik zutitu zituztena. Ezkurdiak egin zuten hurrengo, eta azken tantoan Urrutikoetxeak pilota txapapera bidali zuten. Pronostiko guztien kontra 19 eta 22 irabazita, euren hirugarren puntua lortu zuten Aspekoek, merezitakoa.

Victor-Beroiz zain

Garaipenak arnasa eman dio bikolari. Bihar atzera ere Labriten jokatu dute, Berasaluze II.a ordezkatu duen Victorren eta Beroizen kontra. "Partida konplikatu da, Victor gogoekekin etorriko delako. Esku arina du, partidari erritmoa jartzen dio eta erraz sartzen da airez. Gauzak oso ongi egin behar ditugu irabazteko" azaldu zuten Ezkurdiak material aukeraketan.

8. jardunaldia

Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Iribarria-Merino (ostiralean, 22:00etan, Urdulizen. ETB1, ntb)

Victor-Beroiz / Ezkurdi-Barriola (larunbatean, 17:45ean, Iruñeko Labriten)

Irujo-Rezusta / Altuna III.a-Merino II.a (Igandean, 17:00etan, Atano III.lean. ETB1, ntb)

Bengoetxea VI.a-Untoria / Artola-Albisu (Astelehenean, 16:30ean, Tolosako Beotibarren)

"Guk badakigu zein den gure jokoa, partidari ganoraz heldu eta gogortu; jokoa egiten jarraitu behar dugu. Horregatik irabazi genuen larunbatean" gaineratu zuten.



Murgiondo eta Imaztarrak Zangozako txapelkun

Zangozako lau t'erdiko finalak irabazi zituzten

Igandean Zangozako lau t'erdiko finalak jokatu ziren Cantolagua pilotalekuan. Senior mailan, Irurtzun klubean dabilen Koldo Murgiondok 22 eta 18 irabazi zion Zugaraldeko Migel Rebole zangozarrari, partida gogorrean. Hirugarren eta laugarren postua zehazteko partidaren Oberenako Aritz Jamarrek 22 eta 19 irabazi zion Oberenako Xabi Iribarreni.

Kategoria txikietan Arbizuko Aldabideko pilotariak izan ziren jaun eta jabe. Kimuetan, Iraitz Imazek (Aldabide) 18 eta 8 irabazi zion Xabi Sarasibarri (Oberena), eta haurren mailan Mikel Imaz (Alda-



Txapelkun sakandarrak. UTZITAKOIA

bide) 18 eta 12 gailendu itzaion Mikel Armendarizi (Huarte).



Martija Asperekin

Otsailaren 21ean debutatu du Etxeberrikoak, Astelenan, Xalarekin

Otsailaren 21etik aurrera beste pilotari sakandar profesional bat izango dugu: Julen Martija. Etxeberrikoak Astelena pilotalekuan debutatu du, Eibarren, otsailaren 21ean, Xalarekin. Martijak bi urteko kontratua sinatu zuten Asperekin ilbeltzaren 14an. Martijak 18 urte ditu, atzelaria da, eta afizionatuetan maila bikaina lortu du. Esaterako, Zaldibarko torneo irabazi zuten Xabier Urbieta-



Martija, Aspeko elastikoarekin.

rekin eta Diario Vasco txapelketan txapelkunordea izan zen.

Txirindularitza

Aralar Taldea denboraldirako prestatzen

2015 denboraldiaren balorazioa eta jantzi berrien banaketa egin zuten Lakuntzan

Txirindulari profesionalak hasi dute 2016 denboraldia baina amateurrek eta kategoria txikikoe berandua- go ekingo diote denboraldiari. Hala ere, prestakuntza eta antolakuntza lanetan daude murgilduta gure taldeak. Larunbatean Aralar Txirindulari Taldeko txirindulari, entrenatzaile, arduradun eta senitarte-koak Lakuntzan bildu ziren, besteak beste aurreko denboraldiaren balorazioa egin, aurtengo denboraldiaren xehetasunak prestatu eta txirindulariei aurtengo ekipazioa banatzeko.

RURAL KUTXA BENIDORMEN

Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentaleko txirindulariak Benidormen kontzentratuta daude, ilbeltzaren 26raino. Rural Kutxako talde batek Mallorcako Challengean parte hartuko du, ilbeltzaren 28an, eta beste talde batek ilbeltzaren 31n jokatu du den Mar-sellesan. Ondoren Valentziako Volta, Algarve, Andaluzia eta Euskal Herriko itzuliak etorriko dira. Taldearen helburua denboraldia on egitea da, Espainiako Vueltarako gonbidapena jaso ahal izateko.

Irristaketa

Olazti, Sakanako irristalarien topaleku



Bihar irristalariz beteko da Olaztiko Erburua kiroldegia.

Bihar, 17:00etan, Sakanako irristaketa Topaketa izanen da Erburua kiroldegian

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du Sakanako Irristaketa Topaketa. Olaztin izanen da, bihar, larun-

batean, 17:00etan, Erburua kiroldegian. Ekimena antolatzeko Sakanako Irristaketa Taldearen eta Etxarri Aranatz eta Uharteko Arakilgo irristaketa taldeen laguntza izan du Mank-ek, Olaztiko Udalarenaz gain.

Sakanako irristalariak elkar ezagutzea eta irristaketaz gozatu egun polita pasatzea da topaketaren helburua. Irristaketari lotutako jokoak, ekitaldiak eta lasterketak ez dira faltako.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

16. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 0 - INFANZONES 3

LAGUN ARTEA 3 - BIDEZARRA 2

Etxarri etxean bere bigarren porrota jasan behar izan zuen, bigarren porrota jarraian. Lehen zatian Infanzonesek gehiago dominatu zuen eta gol aukera gehiago izan zituen, eta bi gol sartu zituzten atsedendia baino lehen. Etxarri buelta ematen saiatu zen, baina Infanzonesek hirugarrena sartu zuen, penaltiz.

Bestalde, Lakuntzan partida bikaina jokatu zuen Lagun Arteak. Bidezarra aurreratu zen, baina Asierrek eta Anderrek 2 gol sartu zituzten atsedendia baino lehen. Bigarren zatian Asierrek Lagunen hirugarrena sartu zuen, eta nahiz eta Bidezarra 3 eta 2 hurbildu, 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren.

Sailkapena >>

- 1. Gares34 p
- 3. Etxarri Aranatz30 p
- 5. Lagun Artea25 p

Asteburuko jardunaldia

GARES - ETXARRI ARANATZ

(Larunbatean, 16:30etan, Garesen)

MUTILBERA - LAGUN ARTEA

(Igandean, 16:00etan, Mutiloan)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

16. JARDUNALDIA

LAGUNAK 1 - ALTSASU 1

agunak hasi zen dominatzen eta gol batekin sailkapenean aurreratu egin ziren Barañaingoak. Bigarren zatian Altsasu hobeto atera zen zelaira. Barañainek behera egin zuen eta egoera primeran probestu zuen Altsasuk, Leonek bana berdintzea lortu baitzuen. Puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

- 1. Doneztebe42 p
- 9. Altsasu19 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - HUARTE

(Igandean, 16:00etan, Altsasan)

Areto futbola

Liga geldialdira bosgarrenak



Magna Gurpea Xota Elcheren gainetik pasa zen: 2 eta 7 gailendu ziren berdeak

Areto futboleko 1. mailako ligak geldialdia egingo du hilabete batez Serbian jokatu du Europako Areto Futbol Txapelketarengatik eta Magna Gurpea Xotako mutilek etxeko lanak behar bezala egin da hartuko dute atsedean. Ostira-lean Movistar Inter lider ahaltsuaren kontra 3 eta 5 galdu zuten irurtzundarrek, baina burua tenete zutela, bikain aritu zirelako eta talde ahaltsua paretaren kontra izan zutelako. Baina asteazkenean ez zuten barkatu eta Alicanten jokatu du partidaren Elcheri 2 eta 7 irabazi zion Magna Gurpeak.

Partida hasieran bi taldeak parezpare aritu ziren. Elche jokaldi politik sortzen hasi zen, baina Imanol Arregiren mutilei partidaren sartzea kostatu zitzaion. Elche gehiago saiatu zen, baina Magna Gurpeak hobeto asmatu zuen: Elche-

ren atera iritsi zen lehen aldian gola sartu zuen Rafa Usinek. Elche berdintzea lortu zuen, baina Magna Gurpeak partidaren kontrola bere gain hartu zuen eta atsedendia baino lehen Rafa Usinek eta Araćak 1 eta 3 aurreratu zuten talde berdea. Atsedendia- ren ondoren, Elche partidari buelta ematera atera zen, baina Magna Gurpeak ez zuen barkatu eta laugarrena sartu zuen Rafa Usinek eta bosgarrena Roberto Martilek. Elche atezain-jokalaria formula erabili zuen eta bigarren gola sartzea lortu zuten, baina Martilek eta Yoshikawak sartutako golei esker azkenean 2 eta 7 gailendu ziren irurtzundarrak.

“Garaipen hau garrantzitsua da, Ligak izango duen geldialdira posizio pribilegiatuan joatea ahalbidezen digulako” azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak. 20. jardunaldia jokatu eta gero, Movistar Inter da areto futboleko 1. mailako liderra (58 puntu) eta Magna Gurpea bosgarrena da (37 puntu). Otsailaren 19ra arte geldialdia izango du ligak, Europako txapelketa jokatu baita Serbian. Orduan Magna Gurpeak 22 punturekin 11.a den Levante hartuko du Anaitasuna pabilioian.

Escuelita txapelkun



Irurtzungo 12+12 orduko areto futbol txapelketa irabazi zuen

Eguberrietan jokatu zen, Irurtzungo kiroldegian, La Guantaleak antolatutako 12+12 orduko areto futbol txapelketa. Antolakuntzako Roberto Martilek adierazi digunez, txapelketa ona izan da. “13 taldek hartu zuten parte eta giro bikaina egon zen txapelketan. Gainera, maila handiko partidak izan ziren” azaldu du Martilek.

Ondoko taldeak lehiatu ziren: Irurtzungo, Isotopos (Irurtzun), La faif (Irurtzun), La ten (Irurtzun), Ingenierias Iradi (Altsasu), Lagun Arteak (Lakuntza), Arbizu, Beti Kozkor (Lekunberri), Lekun (Lekunberri), Ikaitz y diez mas (San Jorge), La

escuelita (Iruñea), Bar Parcasio (Arazuri) eta El Candado (Iruñea). La Escuelita -Xota B eta San Juan B taldeko jokalariek osatutako taldea- eta Bar Parcasio iritsi ziren finalera, eta partida bina berdindu eta gero penaltiek erabaki zuten txapelketa. La Escuelita ibili zen finago eta bereaiek izan ziren txapelkunak (500 euro), Bar Parcasioren aurretik (250 euro). Ikaitz y diez mas izan zen hirugarrena (100 euro) eta Isotopos laugarrena, penaltietan ere erabaki zen partidaren.

Torneoko jokalaria onena La Escuelita taldeko Julen Maeztu izan zen eta atezain onena Bar Parcasioko Eder Sendra.

Areto futbola

Zelaitik kantxara

Sakanako Futbol 8 Topaketan areto futboleko ariko dira igandean, Olaztin eta Etxarri Aranatz

Sakanako Futbol 8 Topaketan bigarren joanaldia edo itzulera has-tear dago. Baina igandeko jardunaldia berezia izango da, futboleko arituko baitira neska-mutikoak. Dantzalekuko eta Urdiaingo futbol zelaiak Olaztiko Erburuako kiroldegiko eta Etxarri Aranazko eskole-tako kantxengatik aldatuko dituzte. Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu.

Igandeko areto futbol topaketan partida bakoitzean 12 minutuko 4 tarte jokatu dituzte neska-mutikoek, eta talde bakoitzean 6 jokalaria arituko dira, 5 jokalaria eta atezaina.

10. jardunaldia (Igandean)

Olaztiko Erburua kiroldegian

10:00etan: Sutegi (9 urte) - Sayas/Kaixo (9 urte)

11:00etan: Urdiaing - Mediolanum

12:00etan: Sutegi - Kaixo/Sayas

Etxarriko San Donato eskole-tan

10:00etan: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa

11:00etan: Lagun Arteak - Dantzaleku

12:00etan: Etxarri/Lagun Arteak (9-10 urte) - Altsasu (9 urte)

Atletismoa



Izaskun Beunza hamaikagarrena Nafarroako Kros Laburreko Txapelketan

Tuterako Santa Quiteria zirkuituak hartu zuen, igandean, Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa. Gizonetako Javier Nagorek (Ardoi) lortu zuen 3.825 metroan gailentzea (11:17), Joud Boualame (Ribera Atletico, 11:42) eta Marcos Yaniz (Pamplona Atletico, 11:46) korrikalarien aurretik. Emakumezkoetan, Ana Ollo (Beste Iruña) izan zen azkarrena (13:32), Hiru Herriko Vanesa Pacha (13:50) eta Pamplona Atletico Alicia Carrera (14:20) korrikalarien aurretik. Izaskun Beunza olaztiarra hamaikagarrena sailkatu zen (14:49).



Sergio Garcia bederatzigarrena Betelun

15 sakandar aritu ziren 11. Araitz-Betelu Krosean

Igandean jokatu zen 11. Araitz-Betelu Krosa (7,7 km). 201 korrikalari hartu zuten parte eta Betelun presatutako zirkuituari bi itzuli eman behar izan zizkieten. 187 korrikalari iritsi ziren helmugara. Raul Amatriain nafarra eta Sergio Roman gipuzkoarra batera iritsi ziren helmugara, eta esprint estuan Amatriain gailendu zen (25:14). Emakumezkoen txapela Betelun geratu zen, Madidi Sotil izan baitzen azkarrena (33:52). 15 sakandarrek lortu zuten lasterketadespeditzea. Sergio Garcia de Eulate izan zen azkarrena, helmugara 9.a sartu eta gero (27:00). Emakumezkoetan, Maite Zabaleta etxarriarizan zen azkarrena (35:50).

Sakandarrak 1. Araitz Beteluko Krosean

Gizonak

1.	Raul Amatriain (Zabalza):	25:14
9.	Sergio Garcia de Eulate (Alts.)	27:00
25.	Fco. Javier Gomez (Alts.)	28:34
29.	Iban Gonzalez (Urd.)	28:52
40.	Andoni Azanza (Alts.)	30:09
51.	Iban Sobredo (Alts.)	30:41
75.	Fermin Azkargorta (Itur.)	32:04
86.	Iñaki Murillas (Iru.)	33:12
87.	Santi Agirre (Itur.)	33:13
113.	Carlos Mañeru (Etx.)	35:15
133.	Aingeru Azazeta (Alts.)	37:50
141.	Unai Razkin (Iru.)	38:17

Emakumezkoak

119.	Maite Zabaleta (Etx.)	35:44
120.	Amaia Etxeberria (Iru.)	35:50
132.	Jone Pelaez (Alts.)	37:50
140.	Haizea Ramirez de Alda (Alts.)	38:17

Aizkora



Joseba Otaegik Juanjo Lopez Azpilikuetaekin osatuko du bikoa Lakuntzan.

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketa Lakuntzara

Joseba Otaegik eta Juanjo Lopez Azpilikueta Lawrençe O Toole eta Iker Vicente izango dituzte aurkari, larunbatean, 13:00etan

Egur Sportek antolatutako Binakako Urrezko Aizkora Txapelketaren 5. jardunaldia hartuko du San Saastin festetan murgilduta dagoen Lakuntzak, larunbatean. Zehazki, B multzoan, Joseba Otaegik eta Juanjo Lopez Azpilikueta Lawrençe O Toole australiarra eta Iker Vicente izango dituzte aurkari bihar, 13:00etan, Lakuntzako pilotalekuan.

Bi bikoteek ondoko lanak egin beharko dituzte: erlojuaren kontra 45 ontzako enborra erdibitu; kana erdikoa, zutik, erdibitu; abiadura-proba, 60 ontzakoarekin; 45 ontzako, zutik, eta kana erdikoa, etzanda, erdibitu; eta lan erdiak,

kana erdiko 4 enbor eta 60 ontzako bi enbor zatitu.

Otaegik eta Lopez Azpilikueta irabazten badute, B multzoko liderak izango dira, eta otsailaren 28an Azpeitian jokatu den final handirako sailkatuko dira. Bertarako sailkatuta daude, dagoeneko A multzoko liderak, Atutxa II.a eta Mugertza II.a, egungo txapel-dunak. Baina Lawrence O Toole eta Iker Vicente gailentzen badira, azkeneko jardunaldia itxaron beharko da finalisten berri izateko. Azken jardunaldian Lawrence O Toole eta Iker Vicente lehen jardunaldian Juanjo Lopez Azpilikueta eta Joseba Otaegiren kontra galtzetik datozen Iñaki Azurmendiarekin eta Donato Larretxearekin ariko baitira.

Pilota

Ebakuntzen ondotik, osatze bideari ekin dio Aitor Zubietak

Aurreikuspenen arabera gutxienez 6 hilabete beharko ditu osatzeko

Aitor Zubietari ilbeltzaren 5ean egin zioten ebakuntza bikoitza. Batetik, eskuin belauneko meniskoaren haustura osatzeko ebakuntza egin zioten, eta, bestetik, ezker hankako Aquiles-en tendoiko lesio kronikoa osatzeko ebakuntza. Aspetik azaldu dutenez, Urbarmin klinikan Sagastibeltza eta Garralda medikuek atzelari etxarriarri egindako ebakuntzak ongi atera ziren eta orain osatze eta errehabilitazio prozesuan murgilduta dago etxarriarra. Asperen esanetan, gutxienez 6 hilabete epea beharko du etxarriarrik kantxetara bueltatzeko.

Aitor Zubietak Iker Iribarria zuen bikote Binakakoan, baina hiru partida jokatu eta gero txapelketa utzi behar izan zuen etxarriarrik, eskuin belaunak izugarritzko mina ematen ziolako. Miguel Merinok hartu zuen bere tokia txapelketan.



Aitor Zubietak kantxetik kanpo egongo da urte erdi inguru. UTZITAKOIA

Zabaletak onera egin du nabarmen

Jose Javier Zabaleta atzelariari 2015eko ekainaren 4an ebakuntza egin behar izan zioten eskuin hankako txorkatilako tendoian kaltzifikazio bat zuelako. Osatze eta errehabilitazio prozesua ongi joan da, baina beste arazo bat sortu zitzaion Etxarrengoiari: eskuin eskuan garatxo edo berruga bat atera zitzaion eta sekulako arazoa eman dizkio. Badirudi eskuan



Eskolako ikasleak irakaslearen ondoan, Sakanako Herri Kirol Jardunaldian.

Aizkoran trebatu nahi duzu?

Izena eman Sakanako Aizkora Eskolan otsailaren 18a baino lehen

Sarritan herri kirolaren aritzea nahiko gure baina bertan aritzeko baliabideak eta materialak ez ditugu eskura. Gabezi horiei irtenbidea emateko Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako Aizkora Eskola sortu zuen. Eskolak aukera polita ematen die aizkora gustuko dutenei eta aizkoran hasteko beharrezkoak diren baliabideak—aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste—ez dituztenei. Izan ere, aizkoran has-te zaila suertatzen zaie familian edo lagunartean aizkolariak ez dituztenei.

Eskolarekin, batetik, aizkora bera bultzatu nahi du Mank-ek, eta, bestetik, Sakanako aizkolari harrobion bat osatu nahi du. Urteak dira

Sakanako aizkora eskola antolatzen dela eta asko dira bertatik atera eta egun txapelketetan aritzen diren sakandarrak.

2016ko Sakanako Aizkora Eskola martxoan hasiko da lanean. Ikasleak asteazkenetan –19:30etik 20:30era— eta larunbatetan –12:00etik 13:00etara— murgilduko dira aizkoraren sekretuetan, Etxarri Aranatzan, Juanito Erdozia, Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza aizkolarien esanetara. 10 eta 25 urte bitartek neska-mutikoek eman dezakete izena, eta tokia egonez gero, adin horretatik gorakoek ere.

Izena emateko

Otsailaren 18a baino lehen, Mankoko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Prezioa: 55 euro.



Malerreka Pilota Txapelketa aurrera

Asteburuan Malerreka Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da. Kimuen mailan, Gure Pilotako Jakari eta Barandallari 3 eta 18 irabazi zieten Paz Ziganako Peñalverrek eta Retegik, eta kadeteetan, Olaetxeak eta Petriatik (Arbizu) 18 eta 8 irabazi zieten Salberriari eta Iruretagoienari (Hernani), eta Otxoak eta Ganboak (Etxarri Aranatz) 18 eta 0 hartu zituzten menpean Ansoategi eta Araña (Etxarri Aranatz).

Zizurko lau t'erdia abian

Larunbatean Zizurko lau t'erdiko partidak jokatu ziren Ardoi pilotalekuan. Seniorretan, Ardoi Iraolak 18 eta 13 irabazi zion Pilotajaukuko Arnanari.


kultura >>

MAGIAZ BLAITZERA: Hator magiara ikuskizuna eskainiko du Tor magoak Olatzagutian igandean, 17:00etan, kultur etxean. Familia osoarendako emaldian umorea eta parte hartzea oinarri izanen dira.

Haur eta gazteendako sormen lehiaketak

Sakanako ikastetxeetan ikasten duten ikasleei zuzenduta daude ilustrazio, narrazio labur, poesia eta komiki lehiaketak

Maria Markotegi sormen lehiaketak deitu ditu, atzera ere, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Hainbat mailetan banatuta dago lehiaketa. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan ari diren haurrek Itziar Zubizarretak moldatutako Azenario soroa ipuin ingelesa ilustratu beharko dute. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan ari direnak, berriz, idazle berak moldatutako Katua, oilarra eta igitaia ipuin herrikoia ilustratu beharko dute. Ilustrazioak A4 tamainako orrietan egin beharko dira, nahi den teknika erabiliz. Bi mailetan bina sari banatuko dira: pintura zorro osatu bat.



Hiru adierazpide

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerako ikasketak egiten ari diren ikasleek euren sormena Maria Markotegi lehiaketan hiru adierazpideren bidez azaldu dezakete: narrazio laburra, poesia eta komikia. Bakarkako lanak onartuko dira soilik. Gaia librea izanen da. Lanen luzera honakoa izanen da: olerkietan 14lerro gutxienez eta 40gehienez; komikietan orrialde bat gutxienez eta 5gehienez (A4 tamaina, teknika librea); eta narrazio laburretan LHko 5. eta 6. mailako ikasleek orrialde bat gutxienez eta 3gehienez, DBHko ikasleek 2 orrialde gutxienez eta 5gehienez eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek 3

orrialde gutxienez eta 8gehienez. Literatur lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko beharko dituzte, Arial letra motarekin eta 12 puntuko hizki-tamainarekin.

Data

Lanak, plika sistema erabiliz, Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan martxoaren 18ko 15:00etarako aurkeztu beharko dira.

Adiskidetasun handi baten istorioa taula gainean

Larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean

Bubamara Dance Theatre-
rrek, edo Txori Garcia Uri-
zek eta Ion Barbarinek, eka-
rriko dute *Amico* antzezlanaren Etxarri Aranaztera. Dantza, antzezpena eta keinu-antzerkiaren bidez adiskidetasunari buruzko obra eskainiko dute. Balkanetako ijitoen kulturaren eta musikan inspiratutako lana da. Protagonistak

euren erara dotoreak diren bi lagun dira. Bizitzak indarrez banatu ditu eta Balkanetako gerra, edo beste edozein gerra zibil, bete-betean dela topa egiten dute. Topaketak une komikoak eta samurrak izanen ditu. Gerraren erdian bizitzaren eta laguntasunaren aldeko aldarria egiten dute. Sakanako sortzaileei plazak eskaintzeko asmoz sortutako Agertokiye ekimenaren barruan dago antzezlanaren.

Barre-terapia Pepe Viyuelarekin

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiako Kultur etxean

Demagun, irakurle, eszenatoki batean harrapatuta gelditzen zarela. Eszenan sartzen zarenean ez dakizula non ari zaren sartzen. Zirria sartu dizute: bidea hori dela esanda sartu zara. Eta irakurle, bat-batean, parez pare publikoa atzematen duzu. Badirudi zerbait eskatzen ari zaizula. Zuk, irakurle, ez duzu antzeztu nahi. Irteera bilatzen ahalegintzen zara, alferrik. Zera ikusezin batek eszenatik ihes egitea galarazten dizu irakurle. Benetako itxialdia.

Abiapuntu hori du Pepe Viyuelaren *Encerrona* obrak, pailazoaren ikuspegitik egunerokotasunari buruzko hausnarketa egiten duena. Viyuela "arriskuaren aurrean bakarrik" egonen da, "matxinatu"



egiten zaizkion elementuen kontra "borrokatuz". Viyuelak eszenan maleta bat, gitarra bat eta bere fun-
da, aulki tolesgarri bat eta eskailera bat izanen ditu lagun bakarrak. Sortzailearen aspaldiko jarraitzaileek eta telebistako aktore gisa ezagutu dutenek Viyuelaren klasikoekin barre egiteko aukera aparta izanen dute.

Zinema ikusleen eguna Iortiarra bueltan

Altsasuko Iortia kultur gunea da Sakanan zinema programazio jarraitua eskaintzen duen areto bakarra. Lastailean hasiz zinema denboraldi berria, ostiraletako eta larunbatetako bi emaldiekin; gaurkotasunezko filma eta zineklubekoa. Abenduaren 10etik berriz, ostegunetan 19:00etan, ikuslearen eguna izan da Iortian. Nahi duenak gaurkotasunezko filma 3 eurotan ikusteko aukera du.

Blues-rock doinutarako gonbidapen serioa

Gaur, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan

Serious Business talde Zumaiarra Aitor Badiolak (gitarra elektrikoa eta ahotsa), Maria Armendarizek (baxu elektrikoa eta koroak) eta Ander Zulaikak (bateria eta koroak) musikariek osatzen dute. Taldea, blues eta rock doinuetan oinarrituta, beste estilo batzuekin ausartzen da ere, esaterako, funka, R&B eta jazz. Klasikotik eta modernotik eskaintzeko trebe dira, beraz.

Hirukoak *Really serious* diskoa abenduan argitaratu zuen eta Altsasura hura aurkeztera heldu da. Dozena erdi kantuk osatzen dute lana. Han 40. hamarkadako blues batetik rock oso modernora egin dute saltoa, fusiotik gertu ibiliz. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aritzen dira kantuan.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Hilabeteen euskal izenak

Duela gutxi *ur goiena, ur barrena*, kantatzen ari ginen eta orain hori ere erabat ahaztuta dugu. Hauxe da nire lehenengo zutabea 2016. urtean eta "urte berri on" opa nahi nizuen, baina ez dakit beranduegi ailegatu ez ote naizen.

Nola pasatzen den denbora, urteak eta egunak, eta asteak, eta hilabeteak ere bai! Urtarrilean gaude, ia jada bukatzeaz, ilbeltzean, Oihanek, Etxarriko nire ikasleak, gogoratzen didan bezala. Hilabeteak pasako dira, eta beren izenak gal-

duko dira gordetzen ez baditugu; adibidez, Guaixeko Alfredok eta Mainerrek Sakanako izen hauek beti erabiltzen dituzte: *ilbeltza, otsaila, marsua, apiribila, maiatza, garagarria, garila, agorrila, iraila, lastaila, azaroa* eta *abendua*. Iraila izenaren ordez Sakanan *urra* ere erabili dela esaten da Wikin. Leku berean, Zuberoako formak jasotzen dira: otsailaren ordez *barantaila* esaten dute, martxoaren ordez *apirila jorrraila*, maiatza *epaila*, ekaina *arramaizatza* (bi aldiz maiatza) edo *bagila*, uztaile berdintsua da: *iztaila*, abuztua *agorrila*, iraila *setemere* edo *bürüila*, urria antzekoada: *ürrie-*

ta, azaroak ez du batuko aldaerarekin zerikusirik: *gorotzila*, eta abendua *negila*.

Bestalde, Asier Madarieta Abertzaletasunaren Museoko teknikariaren artikulu bat topatu dut zuzenean. Eusweb orrian. Bizkaieraz erabiltzen diren izenak jasotzen ditu, haien esanahiak eta hamaika mila aldaera bitxi: otsailaren ordez *zezeila*, martxoaren ordez *martia*, ekainaren ordez *bagila*, uztailearen ordez *garagarria* (guketainerako erabiltzen duguien hau), azaroaren ordez *zemendia*. Erdaraz erabiltzen dugun egutegia eliza katolikoaren irazkinetik pasatu da eta finkatuta dago aspaldi-

danik. Baina egon badira beste formak. Frantziako Iraultzan, adibidez, beren egutegi propioa asmatu zuten errepublikazaleek. Matematikoak, Astronomoak eta Poetak saiatu ziren egutegi laiko bat egiten eta Mauleko udal kontseiluko kide batek euskarara itzuli zuen. Urtea irailaren 22an hasten zen eta lehenengo hilabete honi *mahaxte* deitzen zioten, urriaren 22an hasten zen hilabeteari *lainote*, azarokoari *izozte*, abendu-urtarrilekoari *elurkor*, urtarril-otsailekoari *eurikor*, otsaila-martxoari *haizekor*... Apirilaren 20tik maiatzaren 19ra, adibidez, *lilidun* deitzen zioten, zen-

bait lekutan *loraila* ere deitzen diotena.

Jules Vinson idazleak 1910. urtean idatzi zuen Le Calendrier Basque artikulua argitaratu dute euskonews.com gunean. Egilearen iritziz, euskal egutegi zaharra ilargiaren fasean arabera eratzen zen eta, hori dela eta, zenbait urtetan hamabi hilabete zuden eta beste batzuetan hamahiru. Ilargi urdina duela esan ohi da.

Gure kantariek *Ez dok hamahiru!* esan omen zuten. Baina, euskal hilabeteen kontuan egon badago. Ilargi asko ikusteko eta gozatzeko aukera izan dezazuen.

Bardoak, Sakanan hasi eta buka

Nafarroako taldekako bertso ekimeneko saioa bihar, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean izanen da, eta finala Etxarri Aranazko frontoian jokatu da, martxoaren 19an, arratsaldean

Burtero ospatzen den Bardoak Nafarroako taldekako bertso ekimenak hirugarren edizioa du aurtengoa. Bardoak bertso-eskoletatik abiatuta bertso-eskolen sarea eta bertsozaleasuna indartzeko egiten da. Bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatu eta bertsolaritza gune berrietara zabaltzeko helburu badu ere. Horretarako, taldean oinarritzen da. Taldeek, gutxienez, bost kide izan behar dituzte: hiru bertsolari, gai-jartzaile/aurkezlea eta taldeko ordezkaria.

16 taldek parte hartuko dute, guztira 121 parte-hartzaileekin. Haietatik 71 bertsolari aterako dira plazara, inoizko kopururik handiena, eta 20 bertsolarik publiko aurrean lehenengoz kantatzeko pausua emanen dute. Haien artean daude Altsasuko bertso eskolakoak. Eskarmentu gehiagoko dute, berriz, Etxarri Aranazkoak.

Bardoak ekimenak irauten duen bi hilabeteetan 23 saio izanen dira. Kasu gehienetan saio horiek otorduekin osatuko dira. Lehen fasean taldeak bost talde-

Sakandarrak



Altsasuko bertso eskolako kideek Bota lasai taldea osatu dute: Aitziber Grados, Amets Artieda, Aritz Goikoetxea, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Joxema Leitza. Azken hiru horiek izanen dira bertsotan ariko direnak. Aurreneko hiruak, berriz, hasierako agurrean, aurkezpenetan eta bestelakotan ariko dira. Eskolartekoetan aritu ondoren, Leitza ezik, gai-nontzekoak Bardoak ekimenean estreinako aldia dute. Jendaurrean aritu izan badira ere, plaza gehiago egiteko aukera emanen

die Bardoak ekimenak. Bota lasai taldeak bere burua horrela aurkeztu du: "bertsomania daukan talde gara. Ez zaigu asko inporta bertso ona edo txarraren, kontua lasai botatzea da. Etorriko da hobetzeko garaia".

Bihar parean Iruñeko Xirristi Drimtim taldeko Xabier Terreros, Migel Anjel Ortiz de Guzman, Unai Uberetagoena eta Xabier Zarraluki bertsolariak izanen dituzte. Euren multzoa Lesakako Unibertsolariak taldearekin osatzen da. 31n neurtuko dira, Lesakan. Mul-

tzoko onenak eginen du aurrera. Einnekin izenarekin aurkeztu dira Bardoak ekimenera Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre, Oier Lakuntza, Joseba Beltza eta Unai Artieda bertsolariak. Maider Ansa aurkezlearekin osatzen da taldea. Euren multzoa Lizarrako kardoak (Lizarraldea), 3 garagardo eta pintxo bat (Barañain-Berriozar) eta Barakinak (Larañain) taldeekin osatzen da. Lehen bi taldeek eginen dute aurrera. Etxarriarrak 29an Berriozarren ariko dira eta otsailaren 6an Barakinak hartuko dituzte.

tan banatu dituzte eta bakoitzak bere ligaxka jokatu du. Biga-

rrenera sei talde onenak pasako dira eta hiruko finala, Nafarroa-

ko bertsolaritzaren festa handia, Etxarri Aranatzeko jokatu da.

Informazioa

www.bertsozale.eus

Enrike Zelaiaren omenezko DVDa

Haize Berriak banda, Fran Idarreta, Javier Ramos, Gorka Hermosa, Joxan Goikoetxea, Javier Lopez Jaso eta Iñaki Dieguez akordeoilariak, Garikoitz Mendizabal txistularia, Irurtzun, Etxarri eta Altsasuko musika eskolako haur abesbatzak eta abesbatzak elkartu ziren maiatzaren 2an. Enrike Zelaiaren omenez *Zatoz, agur* izenburuko kontzertu omenaldia eskaini zuten, omenak ere parte hartu zuen.

Omenaldia jasotzen duen DVD argitaratu berri du Haize Berriak bandak. Sakanako dendetan 10 eurotan salgai jarriko da. www.bandahaizeberriak.com, bandaren Facebook bidez edo bandahaizeberriak@hotmail.com e-postan egin daitezke eskaerak. Bertan emanaldia ikusi eta entzuteko aukera dago. Argitalpena sei piezek osatzen dute. Joseba Salegik zuzendutako *Zatoz, agur* film laburra, zeinetan Sakanako gazteen egungo diasporaren irudikapena egiten den. Horrekin batera kontzertuan jo ziren bost pieza ere jasotzen dira.

Zaborren erritmora

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Erosi, kontsumitu eta bota. Kontsumitu eta bota. Bota eta bota. Kontsumo gizarte honetan badira Toom-Pak ize-neko pertsonaiak ere. Hondakinen "erreskatatzaileak" dira. Bakarririk sortzen dira eta egiteko bat dute. Zein? Zaborraren artean bilatu, aukeratu eta eraldatu. Zaborra edertasunean eraldatzen dute Toom-Pakek. Sormena musika, erritmoa, bihurtzen da. Poza eta bizitasuna. Eta Toom-Pakek horixe bera eskaini nahi diete egunarekin batera hondakindegira bizitzeko bila joanen direnei.

Goizean, argia hastean, pertsonaien eta hondakindegian bizitzeko bilatzen dutenen arteko topaketa izanen da. Zabor mendian botilak, latak, plastikoak, kartoiak, kableak, burdinak, herdoildutako bidioiak daude. Baita musika ere. Zaborretako bilatzaileek dantzekin eskertuko diete.



Erritmoz eta mugimenduz betetako ikuskizuna da Reciclart 2.0. Sormen lanaren oinarria gaur egungo gizarteak mespretxatzen duen guztian dago oinarrituta, gure hondakinetan hain zuzen ere. Gure jarrerara gaitzesgarri hori salatuko dute Toom-Pakek. Horretatik edozein objektu guretako

arteak bihurtuko dute. Denetarikoko musika doinuak, hip-hop, break-dancea, funkya eta capoeira moduko dantza adierazpideekin batera. Kulturen bidegurutzetako, modu desberdin eta dibertigarri batean mezu bakarra zabaltzeko: birziklatzeko ohitura hartu eta animatu!

Non erabili

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30 €ko erosketatik batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txeketa opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDI

30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

U HARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

U HARTE GAZTA

U HARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 30%	euria: 20%	euria: 8%	euria: 13%	euria: 38%	euria: 20%	euria: 23%
Min: 5 Max: 12	Min: 6 Max: 13	Min: 6 Max: 14	Min: 9 Max: 12	Min: 6 Max: 11	Min: 5 Max: 12	Min: 5 Max: 11

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	10.5	-1	56.8
Ebkarri A.	10.9	-2.6	41.9
Altsasu	11	-2.5	46.2
Aralar	3.3	-4	69.7
Urbasa	6	-7	59

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
24	1	8	15

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1. SARIA:
 Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:
 Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera

Artium
 CAMPING ARTAZA
 Ekain berri
 Lacturale
 IRURTZUN XOTA F.S.
 gaztezulo

>> 11 galdera

Jose Julian Imaz eta Juan Urra
 Ayuda Contenedores GKE-ko boluntarioak

Testua: Maider Betelu Ganboa



ZURE MATRIKULAZIO KANPAINARAKO EUSKARRIAK

Guaixe KOMUNIKAZIOA
 948 564 275 argi@guaixe.eus

%5eko deskontua Guaixe Fundazioaren bazkideentzat argitalpen eta diseinu lanetan

1.Zergatik egin zarete Ayuda Contenedoreseko boluntarioak?
 Imaz: Ni aurreerretiratuta nago eta Urra erretiroa hartuta, eta zerbaitetan laguntza ematea genuen buruan, boluntarioak egitea. Salesianoetan Ayuda Contenedores Gizarte Kanpoko Erakundeaz (GKE) hitz egin ziguten.

2.Zein lan egiten du talde honek?
 Ayuda Contenedores taldeak Iruñean, Etxabakoitzen du egoitza. Material bilketa egiten dute, eta logistika laguntza eskaintzen diete hala eskatzen dieten beste erakundeek; materialez betetako edukiontzien bidalketan laguntzen diete. Garapen bidean dauden herrialdeei giza laguntza emateko proiektuekin lotuta dauden ekimenak dira taldeak laguntzen dituenak.

3.Material bilketa egiteaz aparte, bidalketan laguntzen du zuen GKE-k?
 Bai. Arropak, zapatak, jostailuak eta beste biltzen dira. Gure erakundearekin beste hainbat erakunde jartzen dira harremanetan eta beraiek egiten dute materialaren eskaera eta bidalketa eskaria. Adibidez, Sierra Leonatik eta Perutik materiala eskatu zuten duela gutxi. Gure taldeak edukiontzia bete eta bertara bidali zituen. Momentuan dagoen eskaerari erantzuten zaio.

4.Noiz hasi zineten talde honekin kolaboratzen?
 Orain dela lau hilabete inguru. Iruñeko egoitzan hasi ginen lanean, baina erakundeak proposatu zigun

ea zergatik ez genuen Sakanan delegazio bat zabaltzen. Altsasuko Zumalakarregi plazan, Itziar arrandegiaren eta J.J. tabernaren artean bajera bat utzi digute eta ilbeltzetik han gaude lanean.

5.Hortaz, Sakanan delegazioa du zuen erakundeak.
 Bai. Asteazkenero zabalduko dugu, goizeko 11:00etatik 13:00etara, azoka eguna dela aprobetxatuz. Bertan arropa, zapatak, jostailuak eta beste jasotzen ditugu, beharra duten tokietara eramateko. Emakume talde bat gurekin lanean hasi da boluntario, jasotako arropa hori antolatzeko. Izan ere, arropak sailkatu behar dira: gizonendako, emakumeendako, haurrendako, neguko arropa, udakoa, jostailuak... Gerta daiteke ere norbaitek etxean materiala izatea. Gure delegaziotik pasa dadila eta gu bere etxetik pasako ginatke materiala jasotzera.

6.Beste lanik egiten duzue?
 Bai, bildutakoa Iruñeko egoitzara eramateaz aparte, kanpora bidaltzeko edukiontzia bidali behar direnean edukiontzia betetzera joaten gara. Eta suertatzen dena.

7.Talde irekia da? Boluntario gehiago onartzen dituzue?
 Jakina, boluntario izan nahi dena pasa dadila Altsasuko delegaziotik; esku zabalik hartuko dugu.

8.Askotan jendearen kezka izaten da ea jasotzen dena behar den tokietara iristen den...
 Urra: Hori izan da hasieratik gure kezka eta hala dela ziurtatu digute. Duela gutxi erlijioso salesiar bat izan zen Perura bidaltzeko edukiontzia bat betetzen eta esan zigun zalantzarik ez izateko, guztia iristen dela.

9.Erakundeak egiten duenaren informazioa ematen du, ezta?
 www.ayudacontenedores.org web gunean egiten diren lan guztien informazioa agertzen da. Zer materiala behar den, nora bidali behar den, edukiontzia bakoitza noiz kargatzen den, nola iristen den...

9.Bihar Perura bidaltzeko edukiontzia bat beteko duzue.
 Oteiza de la Solanako Zabala aitak Perun lan egiten du, oihaneko tribuekin. Beste edukiontzia bat bidaliko dugu bertara. Goizeko 8:30ean Oteizan edukiontzia erdia beteko dugu eta beste erdia Iruñean.

10.Jende berria ezagutuko duzue boluntario zabilatzenean.
 Bai, jende asko ezagutzen ari gara. Edukiontzia bete ondoren, hamaketakoak egiten ditugu eta gure arteko harremana sakontzen da.

11.Hortaz, boluntario izatera animatzen duzue jendea.
 Zalantzarik gabe; betetzen zaitu.